

GOIERRITARRA

GOIERRITARRA HILABETEKARIA. 37. zenbakia. 93ko urriak 3.




ORDIZIA
ONGI - ETORRI

FOTOETXE



Nafarroa, 23
20200 BEASAIN
Nagusia, 6
20240 ORDIZIA

● LABORATEGIAK BERTAN
● BIDEOZ KONTROLATURIK

ZUMALAKARREGI MUSEOA

EZ EGON BEGIRA !

ZATOZ ETA PARTE HAR EZAZU



Zumalacarbide
Z.
[Signature]

Z·M

Gipuzkoako Foru Aldundia

MUSEO · ZUMALAKARREGI · MUSEOA

Ormaiztegi · Gipuzkoa

Diputación Foral de Gipuzkoa

Casa . Iriarte Erdikoa . Etxea
20.016 Ormaiztegi - Gipuzkoa
Tlf.: 943 - 88 99 00
Fax: 943 - 88 01 38

GURE ESKEINTZAK:

- **IBILBIDEAK:** Museoan eta Goierrin barrena.
- **IKONOGRAFIA LANTEGIA:** Jolasean ikasteko ariketak.
- **MALETA DIDAKTIKOAK:** Mailegua dohain.
 - * "Jazkien Baula"
 - * "Euskal komunikabide eta garraioak 1788/1865"
- **ARTXIBO ETA LIBURUTEGIA:** XIX mendeko agiri, irudi, aldizkari, liburuak...
- **ARGITALPENAK:** Aldizkari, katalogo, bideoak...
- **IKERKETA BEKAK, ERAKUSKETAK,** eta abar.

BISITA ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera: 10etatik 13etara eta 15etatik 19etara.
Larunbatetan: 10etatik 14etara eta 15'30etatik 18'30etara.

SARRERA DOHAINIK

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

37. zenbakia. 93.eko Urria. Debaldeko alea. Tirada: 20.000 ale. 3.000 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak" Kultur Elkartea. Dorre-etxea, 1. pisua (Correos-gai-nean). Tfna: 889612. Faxe: 161463. 124 posta kutxa, Ordizia.

Erredakzioa: Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea: Josune Agirre, Juan Joxe Urteaga.

Erredakzio Batzordea: Andoni Sarriegi, Tere Irastortza, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna, Jesus M. Munduate, Amaia Balerdi eta Estitxu Imaz.

Ale honetako kolaboratzaileak: Dionisio Amundarain, Xabier Gartzia, Iñaki Leturia, Marijoxe Madariaga, Joxe Begiristain, Kilometroak 93 erakundea, Xabier Urteaga, Arantxa Arza, Estitxu Imaz, Antton Idiakez, Mikel Oiarzabal, Ortizadar, Marron, Agustina Pontesta.

Zenbait argazki: Dioni (Foto Sistema).
Azala: Jose Andres (Ortizadar).

Gure eskerronak: Gure "sponsorei": publizitatea ematen diguten guztiei. Era batera edo bestera lagundu nahi liguketenei, gauzak errazten dizkiguzuenoi eta nola edo hala parte hartu nahi duzuenoi



Fotokonposaketa eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: ANTZA, S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

NON ZER

- 5. orria, aurkezpena
- 6. orria, berri kilometrikoak
- 8. orria, besteek esana
- 9. orria, 3 flax
- 10. orria, Belen Maiza eta ikastola mundua
- 12. orria, ikasle ohiei inkesta
- 15. orria, urriak 3ko programa
- 16. orria, zirkuitua
- 18. orria, "rallye" argazkitan
- 20. orria, Eusebio Iziarri elkarriketata
- 22. orria, Ana Mari Larrañaga andereño erretiratua
- 24. orria, KILOMETROAK argazkitan
- 26. orria, Everesteko azken metroak
- 28. orria, bi iritzi
- 30. orria, Jakintza dantza taldea



Aldizkari honek 16 orritako eranskin bat du Goierrirako bereziki.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jasotzen du

GOIERRITARRAK
GOIERRIKO
UDALEN
LAGUNTZA
DU



ZERAIN

Ibilbideak eta zer ikusiak

Ikuskizun hauek bisitatzeko bi ahalbide daude, bidai antolatu bezala edo astegunetan Udaletxera deitu behar da aurrez 80 17 24 telefonora goizeko 10,30 etatik eguerdiko 14,30 etara.

Asteuruetan ikusteko ordutegi hau izango da.

- Eliza: Goizean 10 etatik 11 etara
Arratsaldean 18 etatik 19 etara
- San Blas ermita: Goizean 11 etatik 12 etara
Arratsaldean 17 etatik 18 etara
- Larraondo serra: Goizean 12 etatik 13 etara
Arratsaldean 16 etatik 17 etara
- Kartzela: Goizean 13 etatik 14 etara
Arratsaldean 19 etatik 20etara

Ordu hauetan laguntzaile bat izango da.

Sarrera bakarra ikuskizun denetarako 200 pzta.

INFORMAZIOA: 80 17 24

ITSASONDOKO UDALA



Kale Nagusia, 24

Tfnoa.: 881170

Faxa: 161045



ZALDIBIAKO
UDALA

Gure hizkuntza bultza dezagun

Orain daukagu aukera

Kilometroen maratoi hortan

Indartuko da euskera.

Zaldibiako herri osoa

Noski han izango gera

Maratoi hortan parte hartzera

Etor gurekin batera.



Beasaingo
udala

BEASAIN-go EUSKARA ZERBITZUA

LOINAZKO SAN MARTIN PLAZA 20200

Tfnoa: 88 75 12

Faxa: 88 17 56



MAIZPIDE
euskaltegia

Tfna.: (943) 88 92 31 / 32
L A Z K A O

Euskararen baitan

Maiz bide horretan

Beti bide horretan

Euskarak gu bere baitan

Heldu da Egun Handia


Hain urruti zirudien Urriak 3ko jaia heldu da. Bidean jende ugari eskeini du bere lankidetzaz, bere ordu librearek eta itxaropenak bertan kokatuz. Gaurkoan, hainbeste bileretan antolaturikoa burutzea dagokigu. Beraz, ongi igaro dezazula eguna eta bertan ikusi eta entzundakoak koka dezala zure barnean. Ordizian ospatzen den KILOMETROAK 93 honek bere barnean daraman mezuaren hazia.

Alde batetik, jakin ezazu **"Jakintza Ikastolak"**, orain dela egun gutxi bere 25. urteurrena ospatu duen ikastolak, ezinbesteko duen **eskolaurre berria** eta erreformaren ildotik gure proiektu pedagogikoa garatzeko beharrezko genituen **bitarteko teknikoak** lortzen lagunduko diguzu. Hainbeste urtetan euskararen hazia ereiten eta heziketa alorrean proiektu sendo bat gorpuzten ihardun duen ikastolak, zure lankidetzaz behar du, zure laguntza ekonomikoa

arnasbide bilakatuko zaio. Hau da Ikastolak lehenik luzatzen dizun eskabide zehatza. Eta aurrez, milesker.

Bestalde, denok dakigunez **Kilometroak** izeneko festak, ikastolen festa izateaz gain **Euskaltzaleon topagune** bihurtu dira. Eta aurtengo topaguneak festa egun eder bat igarotzeaz aparte beste mezu sakonago bat aireratzeko eta barneratzeko baliagarri izan behar du. Aurtengo KILOMETROAK 93 honek, Goierriko eta Euskadi osoko euskaltzaleentzat, **euskararen normalkuntzaren** bidetik sutsuki dihardugunontzat, **eskerronezko omenaldi bero** bat izateaz gain, aurrerantzerako **adore** eta **kemen** iturri izan nahi du.

KILOMETROAK 93 honen mugimendutik euskaldungo osoak eta batez ere Goierrikoak indartuta atera behar du. Gure lemak dioten bezala, **"Geurea, Maratoia"**, bidea luzea baita. Ea gure Goierri hau, euskal **izana** baino **izen** gehiago duen eskualde hau, **euskaraz**



bizi nahiaren eta behararen zipriztinez bustita eta kutsatuta geratzen den.

Zeren, egin dugun bide neketsuak eta luzeak, egun bateko lora edo festa izateko bakarrik bada, ez badu eragin-kortasun gehiago, euskalduntasuna sakontzeko eta areagotzeko balio ez badu, merezi ote?

Antton Amundarain
KILOMETROAK 93 - Koordinatzailea

Gai izandu gara

Ikastolen Konfederakundeak Ordiziako Jakintza Ikastolari KILOMETROAK 93-ren antolakuntza hautatu zioenetik, denok argi genuen zeinen erronka handia zen.

Euskal Jai handi honen helburuak adar asko baditu ere, guk gure Kultur Batzordetik ahalik eta erantzunik zabalena eta herrikoiena ematea pentsatu genion. Programaren prestaketan murgildu ginenean, beti ere aurreko urteetako ekitaldien informazioa eta zehaztasunak present izan genituen.

Urte urte ekimenak lekuan lekuko berezitasunaz edo ospakizunen era ezberdinez aberasten joaten dira. Gu-

rean ere, era hortara, Oiartzundik jaso genuen lekukoa. Haiek ondo baino hobeto burutu zuten Kultur Hamabostaldi hura, aurrean lehen lan-tresna gisa eta baten eta besteen eranskinei esker, guk ere irudikatu genuen gure Kultur Proiektua.

Ausardia eta kemen handiz inoiz aproba ez zen moduko programaketa bultzatzea erabaki genuen, hau da, lau hilabeten zehar kultur ekitaldiak burutzea. Herriko kultur, kirol eta beste hainbat talde eta elkarten laguntza eskergaitza medio burutu duguna.

KILOMETROAK 93 Euskal Jaia ez zen gutxi batzuen apustua, Ordizia-

ko herri guztiarena baizik, eta hori zen gure helburua. Eta gaur, jaiaren gailurrean aurkitzen garenean, ez dira gutxiago antolatu diren ekitaldiak. Programa zabal eta mamitsua gertatu da, era askotako artistak hurbildu zaizkigu beraien ahalmenak musutrukean eskeintzera. Beraz, eskerrak gure asmoak burutzen lagundu diguzuen herritar eta kanpotar guztiei.

Ekin eta jarrai hurrengo batean elkartu arte.

Mikel Oiartzabal
Kilometroak 93 - Kultura Batzordea

MUJIKIA

BEASAIN **Tfona: 88 74 00**

SOLOZABAL

AUTOESKOLA

PERMISO GUZTIAK!

- Motorra
- Autoa
- Kamioia

- Trailerra
- Autobusa
- Erremolkea

Etxezarreta 5 (Herri antzokia parean)
Tel.: 16 12 21 — ORDIZIA

Txinpartak

Milaka argazki errebelatu litezke, kilometroetako luzerako lerro eta orriak idatz litezke egun honekin, zuzen edo zeharka, zer ikusi duten albisteekin. Hona hemen bederen, KILOMETROAK 93ean nabarmenak diren zenbait:

□Euskararen bidetik goazenon jai alai eta bizia da "Kilometroak". Herri osoa lanean jartzeko intentzioak erakutsi eta gero, KM-93 erakundekoek 2.300 borondatezko lagun behar izan ditu gaurko eguneko zerbitzuak eskeintzeko, lan-mota guztietarako. Ohizkoak dira larritasunak Km-ak guztien atarietan, nahiz aurretik planifikaturik eduki gauzak. Baina Ordizian ez ezik, Goierriin ere bagaudenez, eskualdeko osotik datozkie laguntzaileak. Orohar, gauzak ondo zihoazten erredakzio hau isaterako (egun batzuk falta zirela), baina betikoa: xehetasunetara iristeko garaian mila gauza lotu behar da. Erantzungo dutelalakoan daude Batzorde Iraunkorrekoak. 100.000 lagun biltzea espero dira, eguraldiak laguntzen badu. Horiek bilduz gero ere, denak aseturik geratu litezke.

□Beasainen burutu zen orain 16 urte 1. go Kilometroak (77), eta bertako Ibarbia J.a eta Alkartasuna Lizeoko Batzordeak antolatu zuen gaur egun 1.200 ikasle dituen Lizeoa eraikitzeko. Ideia,

Jexux Mari Erguin beasaindarrak ekarri zuen EEBBetatik:

Vietnameko soldaduak Californiara bueltatzean horrelako jaialdi bat eskeini zitzaien. Gure gerra ez zen Vietnamgoa, baina bai euskararena: 15.000 lagun inguru ibili ziren 6 km.etako zirkuituan eta 15 bat milioi inguratu ziren; 40-45 km. egindakorik ere bat baino gehiago izan zen.

DATUEN DANTZA

□8 km.ko ibilbidea izango du aurtengoak, KM-en historian izan den luzee-na. Hirigunea paralizaturik gera ez dakion, herri-kanpoaldetik iragaiten da zirkuituaren gehiengoa. Zirkuitu eroso-a, zoru onekoa eta ikusmira dotorekoa eskeini nahi izan da.



200 milioitik gora kosta den Jakintza Ikastolaren eskolaurreko eraikuntza berriaren zuloa estaltzera etorriko dira ateratako mozkinak. Diru kopuru edo zati txiki bat Ikastolen Federakundera joango da. Jakintzak 230 milioi inguruko zorra du. Udaletxeak eta Diputazioa dira Istituzio laguntzaileak oraingoan.

□Ordizian bertan ezin zen aparkamenduaren arazoa konpondu. Goierri-ra jo da eta erantzun oso ona jaso da inguruko herrietatik: jadanik 15.000 auto eta 300 busentzako zoru finkoa markaturik dago, eskariari erantzuteko prestatuta daude, beraz. Eguraldi ona egingo balu areago, zelai eta belardi asko baitaude erreserban. Trenekin abantaila dugu gainera eta trena era-

ALUMINIOS



EUSKADI, S. A.

Tlfonoak: Biltegia: 16 11 66
Bulegoak: 88 93 50
Fax: 16 02 91

Zubi termikoen haustura
Aroztegiarako profilak
Bainu manparak
Aluminiozko xafla normalizatuak
Makinaria

10 Poligonoa
34-36 Pab.
BEASAIN



ARIARAN karrozeriak

Salbatore Auzoa - Izarraitz, 4
20200 BEASAIN - Tel. 88.70.91



HARRIA GRESAK

BERRIKUNTZA OSOAK

Nafarroa Etorbidea, 45

Tfnoa: 88 54 66
BEASAIN

Etxe barne berrikuntzan eta dekorazioan profesionalak.

Zure bainu gelaren projektua egiten dugu zirrizturik ere alferrik galdu gabe.

Konpromezurik gabeko aurrekontuak.



biltzea gomendatzen da, zirkuitu barruraino iristen delako, erosotasuna, merketasuna... dela eta. Olaberriatik busak jarriko dira zirkuituraino. Bestalde, CAF enpresak bere apar-kamendu guztiak lagatu ditu eta bertako langileak arduratuko dira bertoko zerbitzuez. Eskertzekoa da.

□Geure KILOMETROAK ez da garairik onenean suertatu ordaintutako eta elkartrukeko publizitatearen alorrean. Krisia dela eta ez dela, datu ezkor samarrak: Goierriko neurri batean ondo erantzun du, baina hobeto erantzun zezakeen beste garai batean. Nahia eta ezina azaltzen dira enpresa askoren erantzunetan. □1.500dik 2.000ra bitarte bazkari dituzte eskatuta; herriko pilotalekuan eta Majoriko 4. area inguruan emango dira.

□Bi-hiruko 50 bat taldetxo ibili dira, gutxienez, euskal herrietatik zehar (baita parajerik urrutienetan) kami-xetak, txanoak, motxilak, e.a. salduz eta jendea Ordiziara etor dadin dei eginez. Bikain eta era zoragarrian lan egin bide dute, iazko Oiartzungo salmenta gordinak (24 milioi) gaindituko omen dituzte (ia 22 milioi atera dira arropetan), baina hor ere krisiaren atzaparrak azaldu. Ardo kaxak eta azukre zorrotxoak ere saldu izan dira. Datu objetiboa ez bada ere, 30 milioitik 40ra bitarteko etekina ateratzea espero da orotara, Goierriko aparteko Euskadiko enpresa eta industrietara bidalitako eskarien emaitzik ez



KM-93ko Iraunkorraz gainera Batzordeak: publizitatea, ekonomia, trafikoa, kultura, taberna, erosketa eta bazkariak, zirkuitua, salmentak eta muntaia. Batzorde buruak: Antton Amundarain, Pedro Irastorza, Mikel Miruri, Mikel Oiartzabal, Julian Ormaetxea, Juanito Rubio, Pablo Markiegi, Josetxo Gabirondo, Juanita Amundarain eta Maite Irastorza eta Juan Barandiaran. Batzorde bakoitzean 20-25 zirela, 200dik gora lagun aritu dira. Denak ere ezin hobe lan egin dute eta hasitakoa bukatzea besterik ez da falta.

baita jaso oraindik.

KULTURA

□“Geurea, Maratoia” kaseteen, “Sorotan Bele” taldeak eginiko kantari Mikel Mendizabalek ezarri dio letra. Sintonia hori ez ezik, “Drindots” mu-

sika taldeak edota Karlos Gimenezek egindako bertsoiak ere badira. Goierriko talde, banda eta koru eza-gunenak egin dute berea. Goierriko musika mundua islada daiteke zintan eta etxe bakoitzean egon beharreko dokumentu bat genuke. 4 hileotako kultur ekin-tzek irabaziak ez baino, galarak ekarriko zituzten. Horrek suposatzen du, Kilometroak bezalako ekin-tzek, beti eskean aritu ez baino, beren aportazioa ere egiten dutela.

□Olga Madinaren logotipoa da aurtengo Kilometroak-ena. Jakintzako logotipoa bilatzeko lehiaketa ere ordiziar honek irabazi zuen. Bideo-spota Jesus Etxeberria ataundarrak eginga da; ikastolako umeak, herriko paraje eta errealtate desberdinak dira protagonista spot horretan.

□Goierriko edozein herrietatik aritu da jendea deika, lanerako prest zegoela esanez. Dirua beharko da, baina dena ere ez da dirua: euskararen normalkuntza-ren bidetik goazenok esan dezagula biharko egunean “Eskerrak, Kilometroak hark eman zionik bultzada bat Goierriko euskararen egoerari”. Hori lortzen ez

badugu, hankamotz geratuko ginatke, kilometrozaleen esanetan. KILOMETROAK 93 aglutinantea izan da, pentsakera ezberdinetako jendea gustora sentitu da, inpresio hori nagusitu da. Ondo ateratzekotan, izango ziren arazoak izanda, ez da gutxi!

ZUMAKETA, S.A.

Laister etxebizitza, behe eta garajeak salgai
Lazkaoko Elozegi kalean

Koldo Eleizalde, 1 behea — Telefonoak: 76 33 42/43 — Faxe: 76 11 07 — BERGARA



Paperetatik

Euskara 100 urte barru

"Euskal Herrian euskararen egoera hemendik ehun urte zein izan daitekeen galdetzen zaidanean bi eratako sentsazioak datozkit burura. Batetik euskararen normalizazioa helburua non jar ote genezakeen hain epe luzera eta bestetik ehun urte luzetan zenbat eta zeintzu aldaketa gerta ote daitezkeen gure artean eta inguruan etorkizuna guztiz alda dezaketanak.

(...)Gure eguneroko bizitza istilutsu bihurtzen dugun neurrian edota euskararen inguruan beste gorabeherak eta zatiketak nahasten ditugunean herriar guztien jarrera positiboa eta aurrerakoia zapuzten egon gintezke eta hori izan daiteke epelkeriarekin batera euskara eta euskal izakeraren etsaierik nagusia.

Jose M. Zeberio, HPIN-eko ataundarrak, "Egunkaria", 93-VIII-28

Dionisio Amundarain, euskararen bultzatzaile

"Goierrik Euskal Herriari eman dizkion euskaltzale asko eta bikainen artean Dionisio Amundarainek, 63 urte, toki aparta du. Itsasondan hamaika

senideren arteko familian jaioa, Lazkaoko beneditarren komentuan sartu eta bertan abadetu zen, Parisen urtebetez ikasi ondoren. Beranduago Filosofia lizentziatura egin zuen Erroman eta Donostiako Zorroagako fakultatean. (...) Egin duen itzulpenik garrantzikoena, beti ere taldelanean, Bibliarena izan da. (...) Itzulpena egin dago, baina ez daki Durangoko Azokan salgai egongo ote den. Gura bai. (...) Azken lau urteotan Gasteizen egiten du lan, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen, administrazioko langileak euskalduntzeko lanetan.

Bi gauza eskatzen die bertakoei: batasunaren alde lan egitea eta euskara ikastea. Pertsonarengan eta herriarengan sinisten duenez, euskarak oraingo egoera zaila gaindituko duen itxaropen osoa du".

Joxe Aranzabal, "Euskararen Berri-papera", 93ko abuztua.

Ordiziako Alkatea mintzo

"Orain dela 16 urte, urriaren 3an ospatuko dugun egunak, Goierri bailaran eman zituen lehen pausoak. Gogoratuko dizuen bezala, Beasaingo herria izan zen lehendabiziko Kilometroak antolatuta zuena. Garai hartan ikastolak jaio berriak ziren eta izugarritzko zail-



tasunak izan zituzten behar zuten garapena lortzeko; arazoaren artean, bat garrantzitsua: diru eza. Denboraren poderioz, finantziario arazoak konpontzen joan ziren eta Ikastolaren eguna Euskararen eguna bilakatu zen.

(...)Ordiziako alkate naizen aldetik, ohore handia da niretzat, Ordiziaren izenean Kilometroak-en aurkezpenari hasiera ematea. Euskalduntasunaren bide malkartsu bezain pozgarrian aspaldi bait gaude lotuak, aurrerantzean ere eginahalak egin beharko ditugu euskarak bere herria behin betikoz lor dezan eta 'euskara jalgi hadi plazara' hura gizartearen arlo guztietan erro dadin".

Juanbi Erauskin, GOIERRITARRA, 36. zenb. 93ko ekaina.

GRUPO VITALICIO
SEGUROS BANCO VITALICIO NACIONAL HISPANICA
VITALICIO PENSIONES
ASEGURUAU

Unanue Enparantza, 3 • Tfnoa: 16 04 86

NORDEADEA
Solitu eta argizaketa
ekipoen alokairua

AULKI eta MAHAI
ALOKATZE ZERBITZUA
ALOKAIRUA, GARRAIOA eta MONTAJA

AULK
GALDAKAO
DONOSTIA
Tf. (943) 47 34 88



BILINTX
LIBURUDENDA

DONOSTIA Euskal gaiak: Fermin calbeton, 30 Tel.: 420930
Gai orokorrak: Esterlines, 10 Tel.: 420224/420080
IRUNEN: Republica Argentina, 4 Tel.: 626817
TOLOSAN: Arostegietan, Tel.: 673533
BERGARAN: Ibargaray, 14 Tel.: 764050

→ EUSKAL LIBURU GUZTIAK eta GAI OROKORRETAUAK

→ DISKAK, KASETAK, KONPAKTOAK JOKU DIDAKTIKOAK → BIDEOAK

GEUREA MARATOIOA

Hanka bat eta hanka bi
beso biak ere mugi,
gorputza bidera jalgi
denak bat eginda, segi!

Geurea, maratokia!

Zu prest zaude, prest nago ni,
eta gertu al hago hi?
txalapartaren hots hori,
hanka soinutan itzuli.

Geurea, maratokia!

Eguzkia ta itzala
lagunak diren bezala,
euskarak senti dezala
gu, bere kide gerala.

Geurea, maratokia!

Txindoki erne daukagu,
Oriak ur hotsa badu,
etorkizun bidean, gu
pultsu hau ezin da galdu!

Geurea, maratokia!

Udazkeneko airean
orbelak martxa librean,
euskara, bere bidean,
helmugarako idean.

Geurea, maratokia!

Hitzak: Mikel Mendizabal
Soinua: "Sorotan Bele"



tzea ere. Gaur egun oraindik *Villafranca*-ri eusten dioten herritar pranko ezagutzen dugu... Kilometroak-93koek beren salmentetan lehenbaitlehen eskeini diezazkigutela *Ordiziako* postalak ere.

Josepi

Argazkia: Ordiziako ikuspegi orokorra (1967)

**A ze
flaxa!**

JESUS M. TORAL/DV ORDIZIA

El pasado martes fue presentada oficialmente la canción del kilómetroak, con letra del bertsolari Mikel Mendizábal y música del grupo *Sorotan bela*, que lleva por título «Geurea, Moratoia». La canción ha sido editada en single y casete. Con esta presentación, la ikastola ordiziarra entra en el sprint final.

**SUKALDEKO
HALTZARIAK**

EDER



Sempere, 6 - Tel. 884138
20200 BEASAIN

San Martin, 2 - Tel. 428304
20005 DONOSTIA



ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa

- LEIHOAK, ATEAK ETA ABAR
- ESKAILERAK NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

JAKINTZA IKASTOLAKO ZUZENDARI OHIA, KARGU POLITIKOA, E.A.

Belen Maiza: "Ikastolen Taldea bizirik dago eta ez dugu amorerik emango"

Kilometroak 93 dela medio, Ikastolen iraganaz, orainaz eta geroaz luze elkarrizketatu dugu 46 urtetako emakume jator hau: Jakintzako zuzendari ohia, Ordiziako kultur zinegotzi eta alkateorde ohia, 6. urtez Lazkaoko Ikastolako irakasle, hizlari bikaina irakaskuntza arloan Eusko Alkartasunatik. 4 urtez apartexego ibili bazen ere, PAT-COP delakoan, berriro Ikastolara bueltatu zen, segurtasuna baino sendoago errotua baitu bokazioa. Ikastolak, beste ikastetxeetatik zerbaitek bereizten dituelakoan dago Belen Maiza.

Irakasle egin eta lehen lana Debako Ikastolan izan zuen. Hantxe harrapatu zuen Burgosko Epaiketako garai gatazkatsuak. 70.eko ikasturtean Ordizian zen. Aurten 25. urteurrena bete duen Ordiziako Jakintzak hasera oso gogorak bizi izan zituen. "Nire aurretik Ikastolan sarturiko jendeak eman zion hasiera honi; ondo ikasi genuen zer den nolabait instituzioen kontra lan egitea, ez edozein proiektutan sartuta, irakaskuntzan baizik. Erronka hartan sartu ziren gurasoek, nik uste dut ez zekitela orduan zertan sartzen ziren, zertara helduko ginen". Haserak trabaz beteak izan baziren ere, "osoko eraikuntza" mota bat egin, egin dela uste du ordiziarrek, lehendiko eredurik ez zela, gainera. Uste du, inkonzientzia hori ona dela hainbat erronkei aurre egiteko.

GOIERRITARRA.- Kontaizkiguzu "katakunbetako" Ikastolaren garaietakoak.

BELEN MAIZA.- Hona etorri nintze-nean titulazio falta handia zen, juxtu bi tituludun zeuden: Ana Mari Larrañaga eta Mertxe Txurruka, bere titulua ikastolari utzi ziona, gelak legeztatu ahal izateko. Zuzendaritza-lanetan laguntzaile hasi eta piskana sare administratiboaren barruan aurkitu nintzen, horrek suposatzen zituen traba, ustekabe eta eskabidez betetako bidean. Zuzendaritza aldatzean suertatu nintzen aukeratu. 8 urte egin nituen zeregin hartan. Orduko Palasil legearen ezarpenarekin ireki zen ikastolak legeztatu behar ote ziren ala ez debatea. Garai hartan ere baziren alde eta kontrako

jarrerak, eta ikusirik legeztatugabe uzteak ze ondorioak ekar zitzazkeen, pentsatu beharra geneukan ikasleen egoera legalaz, nahiz eta ideologiak hori ez agindu. Ikastolak legepean sartzea erabaki zen: horrek exijentziak eskatzen zituen, tituludunak behar ziren



OHOrako eta hor hasten dira irakasle-goaren baldintzak aldatzen: gizarte asegurantzak, kontratuak egitea,... Garai hartan gauza bat zegoen garbi, hau da, militantziaren faktore garrantzitsua: hainbat alditan esan dudana, militantzia horrek egin duela Euskaldunon Miraria, Ikastolen Biziraupena, kataluniarrek dioten bezala. Gurasoen eta herriaren laguntzaren ondoan, ezin da ahaztu irakasleen aportazioa: eskola emateaz gain, behartuta sentitzen ginen dirua lortzeko sortzen ziren ekin-tzetan parte hartzea. Ohizkoa izaten zen hilabeteetan kobratu gabe lan egitea. Oso zaila du horri eustea edonork, helburuak garbi ez baditu.

G.- Gogoan baduzu orduko pasadizorik?

B.M.- Goierriko herri txikietan ikastolak sortu ziren, baina maila bateraino eman zezaketen eta orduan Ordiziakora etortzeko beharra sentitu zen; Jakintza eta Beasaingo Lizeoaren artean banatu zen baidada. Legorreta, Itsasondo, Zaldibia, Gaintza eta Amezke-

tako ikasleak genituen eta uste dut herri horietakoak hemengoak baino askoz ere 'sanoagoak' zirela. Hiritarragoak agian 'arrazionalagoak' dira eta herrietakoak naturari lotuagoak... Jendeak errespetua zien herrietakoei, bazekitelako euskara mailan gehiago zirela. Amezketako ikasle sakrifikuak egun osoa botatzen zuten etxez kanpo! Oro har, aberatsa izan zen elkartzeko hori.

G.- Ordutik hona izango ziren hobetako aldaketak Ikastolan, ezta?

B.M.- Bai material didaktikoan eta bai irakasleen prestakuntzan, izugarritzko abantaila eman da. Egun irakasleok profesionalak garela diogu, baina nik beti esan dut profesional-bidean goazela. Irakaskuntzak hobekuntzak eskatzen ditu etengabe. Eta istruktzio maila hobetu badugu ere, heziketa hobetu ote dugun zalantzak ditut: herribaloreak benetan lantzen dira? Gauzak asko aldatu dira eta ikastol-barruetan oso erreflexio serioak egin beharrean gaude. Eskola gizartearen eta familiaren islada baita eta egun gizarteak geroz eta indar gehiago baitu. Hori neutralizatzeko, Ikastolak oso garbi eduki behar du zein den bere heziketaren proiektua. Ikastetxeetako tendentzia eta korrante pedagogiko ezberdinak lotu beharrean gaude, ze bestela nozitu egingo da hori.

G.- Kargu politikoak ere izan dituzu. Nola dakusazu euskara Ordizian?

B.M.- Egia esan panorama nahiko beltza. Lazkaon ez bezala, Ordizian ikusten dut ikaragarritzko atentzioa jarri behar zaiola geure hizkuntzari. Herriak, kaleak ez du inondik laguntzen euskaraz bizi ahal izateko. Hemen erdaraz bizi liteke lasai, ez da inongo beharrik. Kale-bizitzan, hizkuntza normalizatua euskara da Lazkao batean. Ordizian berriz, helduona erdara da eta kontzientzia hori aldatzen-astintzen ez dugun bitartean, gazteek helduei imitatuko diete. Kuriosoa da, Ordizian heldu askok badakite euskaraz, baina erdaraz bizi dira. Kontzientzia lasaitzeko haurrak Ikastolara bidali eta uste horrekin dena betetzen da. Kilometroak 93-etan egingo diren ekin-tza guztiak, gutxi izango dira; euskarak herria behar du atzetik, mugimendu bezala (elkarteak, dendariak, e.a.).

G.- Sare Publikoan sartu/ez sar-tearen zera: zer diozu?

B.M.- Lege honek ez dio benetako soluziorik eman Ikastolak behar zuen irtenbideari. Motz gelditu da, kon-fluentziaren baten zain geunden (bi sareetako alderdi positiboak bil-tzea-edo), Recalde horrela aginduta,

“Militantziari esker izan da Euskal Miraria: Ikastola”

eta zorioneko sobrefinantziazio horren baitan zegoen. Eta gertatu da, nire us-tez, egin dela lege bat nolabait uzten duena gurasoen esku sarearen, eredu linguistikoaren, aukera. Guk uste dugu, herriaren euskalduntze prozesuan par-taide garena eta Ikastola ezin da funtzio sozialik gabe ibili. Ikastolak herri kul-tura jaso eta hobetu behar du, ahoko kultura idatzizko bihurtu eta aberastu, hizkuntza kultu bilakatu euskara. Nik esango nuke deliberatuki egiten dela eredu linguistikoak aukeran gurasoen baitan uztea: %100eko hainbatek es-kola bati A eredu eskatuz gero, legeak babesten ditu gurasook. A eredu ire-kitzea behartzen du ikastetxea admi-nistrazioak. Eta 10 urteko lana ebalua-tuz ikusi da A ereduak ez duela balio inondik Euskal Herria euskalduntzeko. B eredu ere kinka larrian dago, ikusten da administrazioak ez duela ikasten. Egindako erreflexiotik zuzenketarik ez delako proposatzen. Herri honetan bi komunitate mantentzearen aldeko hel-buru oso ezkutu eta zehatza dagoela esatera ausartuko nintzateke. Umeek euskaraz egiten dute ikastolan, baina kanpoan ez: hori mantendu nahi da. Horrek hizkuntza ez erabiltzera era-man dezake gaurko umea, biharko hel-

dua, eskola gainditzeko traba psikologi-koak jarriko dizkio bere buruari.

G.- Intentzio ezkutu hori eta Buesak esanikoa, hots, Ikastolez ezingo dela hitzegin berririo, loturik dakuskizu?

B.M.- Nik uste dut baietz. Ikastolak hor daude, zentru pribatu bezala kataloga-tuta, baina pribatu bidean gelditu ga-renon taldea bizirik eta indarrean dago eta ez dugu amorerik emango. Gu ere eskola publiko baten aldekoak gara, baina ez administrazioaren ereduaren aldeko. Legean, eta hori isildu egiten da, Euskal Eskola bezala etiketatze-ko erak baditu izugarritzko akatsak. Kurri-kulum mailan, bertako kulturari eta historiari eskaintzen zaion portzentaia erridikulua da. Autonomiari dagokio-nez, proposamenak egiteko ahalmena dago; azken erabakitzailea adminis-trazioa da. Eta Ikastoletan horrelakorik ez da izan gaurdaino, bertan konpondu

“Ordizian heldu askok dakite euskaraz, baina...”

dira arazoak, arin eta efektibo asko.

G.- Bereizketa hor dago, ordea.

B.M.- Argi dago ezin dela amore eman. Ikastola asko sare publikora pasa dira arazo ekonomikoengatik, segurtasun bila. Irakasleen eta gurasoen helburu ezberdinak topo egin dute. Ikastetxe pribatuetan hizkuntzaren erabilpena normalizatzea lortu da eta administra-zioak bereganatu duen heinean, bada, bere eskeinte publikoetako zentruetan ere ezarri egin du hori. Ikusi beharko litzateke benetako kalitatekoa den, baina. Ikastoletan ez da planteatu ere egiten euskaraz irakastea ala ez, beste erronka batzu ditugu. Guk dugun deba-tea da hizkuntzaren kalitatearen debate

gogorra. Guk behintzat dugun errefe-rentea da, atzo euskara geneukan beza-la, gaur gizarteak hezkuntza kalitatea eskatzen diola eskolari. Ez jakinduria mailako kalitatea soilik, hainbat arlo-takoa baizik: nortasunaren, baloreen lanketa... Ikastolak bere proiektua egin beharra dauka, euskalduntzen ari den herri bati, herri euskaldun bati begira. Uste dut hor dagoela apustua eta, pri-batu arloan, Ikastolok gure izena era-maten jarraituko dugula.

G.- Kilometroak-93 eta gero, zer?

B.M.- Ordiziako Ikastolak, jakina, hortik ateratzen duen dirulaguntza proiektu baten inguruan gastatuko due-la pentsatzen dut. Dagoeneko ezin du-gu euskarari buruz bakarrik hitzegin. Adibidez, hor dago, eleaniztasun goiz-tiarraren arazoa, ikastola dextentetan ari da esperimintatzen, sartzen inge-lesa 4 urteko umei... Helburua: 12 ur-terekin 4. hizkuntza bat izatea haurrak. Beraz, esan liteke ia Ikastola ez dagoela E.H.-ko eremuari begira bakarrik, bes-te gizaki batetaz mintzo gara. Gizaki ireki bat, bere erroak non dituen garbi dakiena eta tokatuko zaion gizarte berriari aurre egiteko gutxieneko baliabi-deak jasoko dituen. Teknologia mundua puntu inportantea da ikasto-letan, ikaskuntza eta lanaren batzea eta uztartzea.

Orain arteko Ikastolen “euskal mi-raria” militantziak, herri-laguntzak eta irakasleen hor-egoten-jakiteak egin badute, hurrengo helburuak be-teko diren uste osoa du Belen Maizak. “Bai. Nik uste dut hemen garrantzi-tsuena daukagun proiektuan sinestea dela. Sinesten dugun neurrian, indarra edukiko dugu aurrera egiteko. Nahiz eta trabak eduki (eta izango ditugu, ikusi besterik ez dago Ikastolak bizi dugun itolarria, izango dira horrela-koak), baina barne eta kanpoko lagun-tzekin proiektua aurrera aterako da.

Jon Mikel Arano
Jesus M. Munduate



Autowag, s.a.

Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.
Tfnoak: 88 82 66 - 88 82 54

BEASAIN

LELA

KRISTALDEGIA

Eraikin eta merkatalguneen
Kristal ezarrazteak - Beirategiak - Orma-ispiluak



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tfno: 88 88 24

BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salbatore Auzoa. Tfno: 88 60 70

BEASAIN

IKASTOLAKO IKASLE OHIEI

Galdera: Parte hartzen duzu Kilometroak bezalako euskararen aldeko ekintzetan? Zergatik?



Xabier Agirre, aktore legorretarra.

Bai motel! Nola ez. Kasu honetan Gipuzkoako ikastolen alde. Zergatik? Ba, errex ulertzeko eta adibide xelebre bat jarritz, Bartzelonako jokalaria ospetsu eta berri den "Romariok" futboleko jolasteko dituen toki, ingurune eta aukera ederrak dituen bezala, ikastolako haurrek eskubide bera izan dezaten (kondizio onenetan, ikastolan), euskaraz jolasteko, euskaraz hezitze eta euskaraz bizitzeko, bera baita gure Herri honen oinarria. Gora Kilometroak!



Iñaki Galparsoro, ordiziarra, 29 urte, komertziala.

Lehenengo Kilometroak-en izan nintzen Beasainen eta lehenengo horri esker altxatu zeneko Alkartasuna Lizetean bukatu nituen OHOKo ikasketak, aurretiko ikasketak Jakintzan eginda. Horrelako ekintzetan gehienetan izan naiz, dela Nafarroa Oinez, dela Araba Euskaraz... lagunekin egun on bat pasatuz denetan ere. Zergatik noan? Zeren, ez dakit, uste dudalako ikastolen funtzioa oinarritzkoa dela euskararekiko; euskaraz hezi naizelako eta bestee

ere eskubide hori izan dezaten. Horrelako ekintzetan "kolore" guztietako jendeak parte hartzen duelako eta hori esperantzagarria da Herri honetan.



Maite Goñi, ordiziarra, 26 urte, BBBko irakaslea.

Egia esan oso gutxitan izan naiz horrelako ekinaldietan, baina hemendik aurrera, ikusita zer nolako lana suposatzen duen antolaketa, zenbat jendek parte hartzen duen, etab. guztiera joango naizen susmoa dut.



Eguerditan:
Self-service 750 pzta.
Eguneko menua 1.500 pzta.
Degustazio menua 2.500 pzta.

JATETXEA
Juan Rubio

Ostiral et larunbatetan irekita

HIPER OLABERRIA

Tlfonoa: 16 02 15

MUEBLES

Ordizia

HALTZARIAK

Tfnoak: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

SIADECO

SOZIO-EKONOMI IKERKETA ELKARTEA

25 urte Euskal gizartearen garapenaren alde

Jose Artetxe 11, 1 ezk.

Tel. (943) 31 00 34 — Faxe: 31 01 59

20009 DONOSTIA



Ana Sarasola, ordiziarra, OHOkoko irakaslea.

Ez. Agian utzikieriaz edota ez dudalako orain arte oso hurbil izan.



Jose Ramon Goñi, ordiziarra, 27 urte, BBBko irakaslea.

Bai, ahal dudan guztietan behintzat bai; eta gainera beharrezkoa iruditzen zait horrelako ekinaldietara joatea, ez

bakarrrik euskararekiko suposatzen duen bultzadagatik, baita leku ezberdinetako jendea topatzen duzulako ere.

Josune Sarasola, ordiziarra, 30 urte, BBBko irakaslea.

Egia esan orain arte ez dut gauza handirik egin. Alde batetik Ikastolatik atera nintzenean Euskal Herriatik kanpora joan nintzan ikasketak jarraitzera eta bestetik ez dut aukera gehiegirik izan horrelako ekintzetan parte hartzeko. Orain berriro, Ordizian finkatu naizenez gero, parte hartzeko asmoa dut aktiboki.

HARROBI

Apartado 143
Tel. 16 08 55 BEASAIN
Tel. 39 34 11 DONOSTIA
20200 BEASAIN

HARROBI PROIEKTU ETA ERREFORMAK
IRAGAZGAIZKETA * GAINEZTADURA



ANZIZAR, S. A.

Beasain-Zumarraga 46 Km.
Telefonoak (943) 88 17 00 - 88 17 00
FAX. (943) 88 48 11

111 p.k.
20200 BEASAIN



GABIONA

Errodamentuak O. E.

Telf: 88 45 00
Fax: 88 99 06

Goierrri, z/g
ORDIZIA



Bilore


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

**Guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da,
profesionaltasun garbiko
bidean.**



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak
gogor diharduela euskal gizarte
eta enpresagintzaren alde. Oso
Kutxa geure-geurea dela. Euskal
Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen
al duzu gure profesionaltasun
-eta aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura
gehiago. Familientzat, interes han-
diagoak kontu korrontean eta ohiz-
ko libretan. Beste kutxetan baino
gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da, profesio-
naltasun garbiko bidean.



orkli, s.coop.



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**


ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

Egun osoz:	JOLAS PARKEA
HAUR JOLASAK : k iruzak	

HAUR JOLASAK:kimiak

ZERAMIKA TAILERRA ,TOKA,BEISBOL...

-----ZIRKUITOAN----- ZEHA: Iturengo Joa Iduak, Abaitzisketako Txantxoak, Ondarruko
a Idoak, Irkitilariak, Txarngak, Dantza ta Ideak, Parapentea, Artisauei Erakusketak, Gaiteoak, Dultzina



san jose

haltzariak

Lantegia: S. Bartolome, 2 - Tfonoa: 88 06 30
Erakustokia: filipinas, 2 - Tfonoa: 88 30 10

ORDIZIA

Mandubiko Benta



☎ 88 26 73

Urolatik
bidean
MANDUBIA

Goierriako

GOIERRIRAKO GEHIGARRIA

Non zer berri

Debaldeko iragarkiak

Lana

□ Zure inprimategi lanak egingo ditugu GOIERRITARRAN, "ANTZA" ko maixuen eskutik. Dei 88 96 12 tfnora.

□ Neska euskalduna prest etxekolanak egin eta umeak zaintzeko. 883328ra dei.

□ Emakume euskaldun eta esperientziadun batek Goierrialdeko agureak zainduko lituzke: etxe-kliniketan, egunez edo gauez, jaiegunetan ere bai, orduz hitzegingo genuke. Tlfnoa: 887751, Maria Pilar.

□ Neska euskaldunak umeak zaindu eta etxeko eta bestelako garbiketa lanak egingo lituzke. Dei Beasaingo 887191ra, Idoia.

□ Igeltseritza lanetarako pronto dago 7 urteko esperientziadun mutil tituluduna. 889387 tlfnoa.

□ Informatika eta kontabilitate eza-guerak dituen neska batek lan egingo luke. 889414.

Salerosketak

□ Sukaldea aldatzekotan bazabiltza, jakin Ordiziako Gaztetxean gustora hartuko genukeela botatzea zoazen hori. Dei 884335 telefonora (Mikel).

□ Bigarren eskuko belarra mozteko makina txiki bat erosiko nuke. 882827, Ormaiztegi.

□ Bulegoko altzairuak, artxibadora, apal-armairu, aulki edo mahaiak aldatzera baldin bazoaz, GOIERRITARRA aldizkaria guztiaren beharrean dago, ekin behar dugun eraldaketa dela medio, eta merke-merke edo kentzearen alde hartuko genituzke. Dei 889612 telefonora mesedez. Eskerrikasko!

□ Opel Kadett gorria, SS-AG, salgai, 5 ate, egoera ezin hobean. Dei 650814ra.

□ Ford Orion bat salgai, SS-U, egoera onean. 884255 tfnoa.

□ Ronda GLX 1.5, SS-V, salgai 200.000 pezetetan. Dei gaueko 9etatik aurrera 801129ra.

Etxebizitzak

□ Gela bat alokatuko edota pisua konpartituko lukeen jendea behar dugu. (94) 4435095 / 4434472.


□ Garaje itxia salgai Beasainen, J.M. Iturriotz kalean, 886397ra dei.

ORDIZIAKO BARRENA KULTUR ETXEAN

* Urriak 4tik 8ra: Javier Fernandezek ikusentzunezkoak: Galapagos, Los Llanos Venezuela, Ekuador eta Kenia, 7,30etan.

* Bi pintura erakusketa: May Colmenero (9a arte) eta 15etik 29ra Cantabriako "Grupo 90".

* 15etik 24erakusketa eta hitzaldiak, Euskal Ikurrak dituztela gaitzat, Donostiako "Ikurmen" taldearen eskutik.



XIX MENDEKO ARGAZKIEN LEHIA

Goierritar guztioi dei bat zabaldu nahi lieke Zumalakarregi Museoa: alegia, Zumalakarregi edo Karlitate buruzko materialak (liburuak, irudiak, objektuak, argazkiak, e.a.) etxean dituzuenak, museoko ateak zabalik dituzuela.

"XIX Mendea, Nola ikusten duzu?", izenburupean argazki zaharren lehiaketa antzeko bat antolatu dute. Gaur egun arte iraun duten eraikin, ofizio, erakunde, ohituren e.a.-en argazkiak bidali daitezke. Herri guztietan izango da zer edo zer. Oinarrietan jartzen duenez, 18 urte artekoek parte har dezakete, 18 x 24 cmko. argazkiak bidali behar dira; bildutakoekin erakusketa ibiltaria antolatuko da eta ZM Museoaren oroigarri bat eta 3 argazki makinen zozketan parte hartuko duzue. Argazkiak bidaltzeko epea 93ko urriaren 18an bukatzen da.

Eta zalantzarik baduzu, ez dudarik egin eta deitu Museora (Iriarte Erdikoa baserria, 20216 Ormaiztegi) Xabier Kerejetaz galdetuz: 889900 tfnoa.

EGUTEGIAK:

Ordiziako Mendizaleak: Urriak 10: Zarautz-Pagoeta; 17: Arlaban-Urkulu; 24: Araia-Aratz-Altsasu; 31: Herriko beterranoen ibilaldia.

Beasaingo Aitzgorri M.E.: Urriak 3: Kilometroak 93; 10: Nafarroa Oinez; 17: Saioa; 24: Beasain-Gaintza-Beasain.

Pausogaizto Goierriko Mendizaleak: Urriak 3: Puente herrikoia; Urrian: Eskalada ikastaroa.

Ordizia/Beasaingo Goardiako farmaziak: Urriak 1: Cuesta; 2-3: Azpilikueta; 4: Arriola; 5: Urbizu; 6: Atorrasagasti; 7: Azpilikueta; 8: Jauregi; 9-10: Atorrasagasti; 11: Laurnaga; 12: Cuesta; 13: Arriola; 14: Urbizu; 15: Atorrasagasti; 16-17: Cuesta; 18: Azpilikueta; 19: Jauregi; 20: Laurnaga; 21: Cuesta; 22: Arriola; 23-24: Jauregi; 25: Urbizu; 26: Atorrasagasti; 27: Azpilikueta; 28: Jauregi; 29: Laurnaga; 30-31: Urbizu.

Trujillori zehaztasun batzuk

Andoni Sarriegi Eskisabelek

GOIERRI GUREA (uztaileko GOIERRI-TARRA; 36 zk.) izeneko artikuluan aipatutako gai batzuek bederen zuhurtasunez egindako zehaztasun eta zuzentasun batzuek behar dituztela iritzita, xehetasun batzuek behintzat eskaini beharrean sentitu dut neure burua, baina ez hainbeste beasaindarra naizen aldetik, historia-ko dokumentuek diotena oso lardaskatua eta desegoki aipatua ikusi dudalako baizik. Historialaria ez naizen arren, saiatu naiz Goierriko hainbat herritako histori lanak irakurtzen eta beti ere, dokumentuetako zitekin frogatutako aipamenak dira kontuan hartzekoak eta ez zenbait egunkaritako hainbat kronikarik arinki eta funts handirik gabe dena eta ez dena korapilatuz jaurtitakoak. (Mesedez Kifi eta bere Beasaingo lankideak ez hartu ispilutzat horrelako gaietan!). Garai hauetara iritsi ondoren, beasaindar, ordiziar eta gainerako goierriarrok, jakin beharko genuke histori arloko garia eta oloa bereizten, baina dirudienez oraindik ere ez dugu ikasi.

Beasaingo DVko artikuluko adjektibo opa-roak alde batera utzita, zorrotzago egindako idazlanak oinarritzat hartu beharra dago. Beasaingo gaur egungo Loinatz jaien jatorriaz (euskaraz beti horrela deituak izan dira; ez San Martin jaiak) hitz egiteko, hiru histori lanen aipamenak egingo dizkizut eta arlo horretan Beasainen behintzat, nik ezagutzen ditudan hiru idazlanik onentsuenak dira. Lehen a Migel Anjel Lopez-ek zuzenduta Joanjo Gozalok "BEASAIN. Udalerrri gipuzkoar baten historia" liburuan 113. orrian azaltzen dena. Bigarrena Aita Jose Inazio Lasa frantziskotar eta aratz-matxinbentzar zenduak 1984ko *Beasain Jaietan* urtekarian Loinazko Feriei buruz idatzitako artikulua eta hirugarrena Martin Mendizabal frantziskotar eta historilari zaldibitarrek 1979ko *Beasain Jaietan* urtekarian idatzitako "Beasaingo pestak noiztik?" artikulua. Tamalez erantzun honetan ez dut lekuri testu-zitak hitez hitz jartzeko, baina hiru lanak ere elkarren osagarri direnez eta gauza batzuek errepikatu ere egiten dituztenez, honako laburpen zehatz hauek emango dizkizut:

1) Ez dago data zehatzik Loinazko feriaren hasiera zehazteko. Aita Lasak dioenez, Gari-baik aipatzen du. Aita Martin Mendizabalek berriz Gipuzkoan dituen behin egiten ziren 8 feria nagusi aipatzen duen, gero beste hainbeste lekutako festa-egun izatera pasa direnak. Horietako 4 leku irekietakoak: Santa Lutzikoa (gero Zumarragako feria bihurtua), Elosukoa (Pentekostes egunean) Bergarako festa bihurtua, Loinazkoa (Azentziotan) Beasaingo festa bihurtua eta Iturriozkoa (Azentziotan) Aiako festa bihurtua. Beste 4ak berriz hiribilduetan egiten zirenak eta beste hainbeste festa (azkene-koak salbu) sortu dituztenak: San Sebastianetan Azpeitian, San Joanetan Arrasaten, Santamasetan Donostian eta Santa Anatan Seguran. Guztiak bat datoz, Feria horiek herritarrek, hots populuak, sortuak izan zirela esatean eta ohitura eta usariozkoak zirela aitortzean eta denek diote ez zirela Errege-dekretuz sortu beste batzuek

bezala. Lope de Isastik dioenez, Loinazko Andre Mariren ermita (feria han egiten zen), jaiara handiko lekua zen eta Letani garaian, Beasain, Ordizia, Lazkao, Arriaran, Astigarreta eta Ormaiztegioko herritarrek joan ohi ziren maiatzeko larunbat batean (Azentzio ondorengoan; Loinatz bezperan) salgai ugarirekin feria eginez.

2) 1726an, Iruñeko Apezpikuak ikustaldi bat egin zuen eta jendea gaua pasatzen ermita barruan eta inguruko estalpetan gelditzen zela, etab., debekatu egin zituen. Ondorioz, agintari zibilek ere gauza bera egin zuten Ordizian 1727an bildutako Batzarre Nagusien erabakiz. Orduan, Beasaingo Loinazko feria herrigunera ekarri zuten (Elizatarira hain zuten ere eta horregatik da hain bikaina) eta hor jarraitu zuen feriak eta festek. Istilutxo bat ere aipatzen du Aita Martin Mendizabalek zezanak zirela eta, baina ez noa horrekin luzatzera. Leku irekietako Feria gipuzkoar horien suntsiketarako (zerga gabeak baitziren) arrazoi nagusiak, hiribilduen interesak eta zergak izan bide ziren, nahiz eta arrazoitzat lapurretak eta beste egintza gaizto batzuek aipatu.

3) Nazioartekotasun edo internazionaltasunari buruz berriz, Aita Martinek esplikazio garbia ematen du: "euskaldun ez ziren guztiak atzerritar edo arrotz deitzen zitzaizkien" eta hortik kronikari erdaldunek "internacional" adjektiboa erabiltzea. Gaur zentzu horretan hitz egin da, eta orduan ez bezala, Beasain eta Ordizia eguneroko bizitzan ditugu internazionalak zorritzarrez. Bestalde, "tela verde de Cuenca, rebozos de Holanda, de damasco blanco, basquiñas..." eta gisakoak, testamentuetan eta bertako jeneroak ez zirelako jauntxoek aipatzea ohoretan zutelako dela dio Aita Mendizabalek. Egia da noski, orduan ere, merkatariei erosteko dirua zutenek, gaur bezalaxe, oso preziatuak zituztela jenero arrotzak eta orduko merkatal zirkuituak ikusita ez da harritzekoa feria hauetan Europako zenbait herrialdeetan egindako gauza batzuek saltzea.

4) Asteroko azokarena beste kontu bat da. Aita Mendizabalek berak dioenez, 1925-12-17an erabaki zuen Beasaingo Udalbatzak asteartero azoka egitea. 1926-02-02an hasi zen eta Ordiziak (orduan Villafranca de Oria) 1927-09-14eko Errege-Dekretua probetxatuz errekurritu egin zuen eta debekatua izan zen hari eta 1935-10-31n Udal-legearen bitartez berriro indarrean jarri zen arte.

Guzti horiek eta gehiago ere aipatzen dituzte hiru azterlari horiek. Beraz Bixente, ez dira umekeriak, historia baizik. Egia esan asko harritu nau zu 8 urtetan zehar Beasainen bizi ondoren, aipatu dizkizudan idazlan horiek ez eza-gutzeak edota ezagutzen badituzu, txantxetan hartzeak. Geure historia txantxetan hartzen badugu, abiapuntu ederretik abiatuko gara etorkizunerako!

Tunelari buruz ere beste ohar bat egin nahi nizuke. Tunela noski Beasain eta Ordizia artean dago edota alderantziz, nahi duzun bezala. Tu-

nel hori "Beasaingo Tunela" izenez mapa, plano eta dokumentu batzuetan azaltzea, ez da beasaindarrek ipinia, probintziako errepide eta komunikazioen ardura dutenek baizik. Gaur egun dagoen lekuizena txikiak ezkutatu eta izen handi batzuekin gelditzeko joeraren ondorioa baino ez da hori. Beasainek historian zehar zenbait izan badu eta gaur ere baldin badu, hori bide nagusien gurutzagune izatea da eta agian hortik jarri diote "Beasaingo tunela" izena ere. Gauzak zehaztera joanda ordea, tunelari izen bat ematekotan, ez Beasaingo herriarena eta ezta Ordiziako herriarena ere ez litzaioke eman behar. Mendi horrek badu izen bat: *Galardi* eta dokumentatuta dago. Hiru herrietakoak ziren Lazkaibar, Upabi, Txintxurreta, Igeldegi eta inguruko beste baserrietakoak hala deitzen zioten nik ezagutu nituenen. Gure familiako asabak, Beasain, Lazkao eta Ordiziako mugetatik hurbileneko puntuan zegoen Beasaingo Txintxurreta baserrian bizi izanak dira eta baserri hori Beasaingo egungo tunel-sarreraren inguruan zen. Beasain aldeko muturrak (lehen bat eta orain bi) Beasaingo lurretan daude baina errepidea gero Lazkaoko lurretan sartzen da ostera berriro ere Beasaingoetara pasatzen. Lekuizena jatorri berreskuratzekotan, nik *Galardiko Tunela* deituko nioke eta Beasain eta Ordizia artean edota alderantziz kokatuta dagoela esan. Euskal toponimiak merezi duen errespetoak eta berreskurapenak horixe eskatzen digu.

Eta bukatzeko bi hitz Beasain/Ordizia arteko arrapazkez. Beasainek ia 3.000 biztanle gehiago ditu eta komunikazio-gune garrantzitsuagoa da. Ordizia aldiz hiribildu historikoa eta administrazioari atxekiagoa izan da orain arte, Epaitegi gorenagoa, duela gutxi arte Notaria berak bakarrik, etab. Ordiziak funtzionaritzaren seinala handiagoak izan ditu. Orain, zerbitzu batzuek Ordizian kokatu dira (Suhiltzaileak, Notaria, Goierriko bertsolari-eskola, etab.) eta beste batzuek Beasainen (Osasun-arloko zentru nagusiagoa, Haziendarena, Notaria ere bada, Zaborregia, Arriaran urtegia, etab.). Zerbitzu guztiak ez dituzte funtzionariak sortarazten eta hori ordiziar batek esatea farregarria da. Beasainek zerbitzuak bereganatzeko ahaleginak egin dituela ez dizut ukatuko baina Ordizia ahaleginean atzean ez dela geratu ere begibistakoa da. Ala biztanle gehiago izan balitu eta Beasainek dituen komunikazio-loturak izan, Beasaina bidaliko ote zituen ba zerbitzuak? Umekeria handi samarra da gauzak horren sinpleki eztabaidatzea. Zerbitzuak normalean eta salbuespenak salbu, jendearen beharrei hurbiletik erantzuteko sortu ohi dira eta gure "umekeriak" eta lehiak ez dituzte ez erakarriko eta ezta lekuz aldatuko ere. Tolosa ere Gipuzkoako hiriburua izan zen baina gaur ez da. Ordizia eskualdeko administrazio-gune izan zen eta Segura ere bai baina hori ez da betirako izaten. Gaur aitortu beharrean zaude, edozein administrazio-plangintzetan Beasainek bere lekua behar duela, Ordiziak berea (ez denena) behar duen bezalaxe. Beraz, urak egingo du bere bidea.

Eroen hondartzan

Santanderreko Suances herrian dago Playa de los Locos deituri-koa. Hantxe nengoen ni oporretako egun batez, izen bitxiak erakarrita nonbait, eta, eroei buruzko txisteak entzun eta kontatuz. Kontu kontariko saiotoak nondik edo handik segida sorgindua izan nahi bailuen, "El Correo Español" egunkariko artikuluzoro batekin egin nuen topo. Euskara gaitzat harturik, inon idatz daitezkeen erokeriarik ausartenak idazten zituen Gasteizko Ignacio Ruiz de Larrea ize-neko batek, 93-VII-22ko alean.

Ni nengoen, hizkuntzak oro (inon den hizkuntzarik zokoratuena ere) gizar-tearen altxor preziatuak direla eta inoiz ez lioketela inori inon baimenik eman beharko inongo hizkuntzaren kontrako tiroak jaurtikitzeko. Leku ederrean ni! Ez al diote ba gizatzilibitu horri "El Correo"n baimenik eman euskararen kontrako gorrotozko aireak jo ditzan? Txilibitua dela diot, ez baitago gozo aditzerik lau haizeetara hedatu duen burrunbada kirrinkaria: "*Exhorto a los estudiantes vascos cuya lengua materna es el español a que se nieguen a examinarse en euskera*". Eta (bere tiroak euskaraturik) Unibertsitateko selektibitatea egitean, utz ditza-tela zurian euskarazko azterketak. Ez bezate ikasle horiek ikastetxeetan euskarazko eskolarik har: Intsumisioa euskararen inposizioaren aurka!

Zein ote da bere suminduraren zioa? Zergatik hasi zaigu direnak eta ez direnak lotsarik gabe lotsagarriro esaten? Zerk aztoratuko gasteiztar ipurterrea eta Euskararen Erabilerarako Normalkuntza Legeak alajaina! Injuste-

tan injustuena baita inondik ere lege hori gizaixoarentzat. Hona non ikusten dituen injustiziaren iturriak: A) Euskara ez da beharrezkoa Pais Vasco-ko bizilagunekin harremanak izateko: mundu guztiak baitaki espainiera. B) Euskararen jatorria ezezaguna da eta espainiera, aldiz, aurriritzirik gabe onartu behar dugunez, bertoko hizkuntza, duela mila urte hemen jaioa. D) (Bere 3. burubide baldarra euskaratu gabe uztea hobesten dut) (*Quien nos asegura que el euskera no fue impuesto por la fuerza de las armas a los habitantes de lo que hoy conocemos como Euskal-Herria?*)

Hamaika aldiz hamaika horrelakoak irakurrita egonagatik ere, beti pentsatu izan dut luzaro gabe ero-hondartza batean desegingo direla tamaina horretako baldarkeriak. Azkenetan daude euskararekin bihotz-zabalik jokatu nahi ez dutenen irainezko eskalatoiak. Itsasoa (etorkizuna, beraz) aldekoa dugu, noiz edo noiz eskergaiztoko uhinak oldartzen zaizkigun arren. Hala eta guztiz ere, etorkizuna presente ikusi artean, nola jokatu halako iraintzaileekin? Batek tentaldia izan ohi du luma hartu eta, euskararen auzian gauzak ikusten dituen bezalaxe, honi eta beste hari erdarazko erantzunak emateko. Eutsi egin nahi izan diot ordea erdarazko tentaldiari. Erdarazko erantzunak ematen hastekotan, ez beti baina askotan ero-hondartzako uretan murgildu besterik egiten ez garelakoan nago. Gure aurkako hautsak harrotzen ditugu maizegi, espainiera derrigortu nahi digutenei gizalegez eta modu onez espainierazko azalpenak eskaintzen diz-

kiegunetan.

Aurreratuko al genuke zerbait erdaraz idatzi eta, besteak beste, Barandiaranen edo Menendez Pidalen euskararen jatorri eta hedapenari buruzko esan-nak (teoria iberikoa delakoa, kasurako) gogora ekarriko bagenizkio euskararen jatorria ezezaguna dela dioen aipaturiko gasteiztarrari? Oroitaraz geniezaioke, indarraren indarrez zer hizkuntza paratu zuten hemen zalantzak dituen horri, euskaraz aritzeagatik eta ez bestegatik isun ugari ezarri zituztela Euskal Herrietan; ikastetxeetako mai-xu-maixtrek eratzuna jartzen zietela euskaraz mintzatzen "harrapatzen" zituzten ikasleei, eta eratzunarekin batera zigorra zetorkiela ume-koitaduei; soldaduskara joandako hainbat euskalduni gorriak eta beltzak sofrituarazi zizkietela erdaraz ez jakiteagatik... Adieraz geniezaioke halakoari posible dela gaztelania atsegin izan eta gozatzeta (nik neuk ere une ederrak eman ditut uda honetan Borges eta Vargas Llosa-ren zenbait idatzi irakurriz) eta, aldi berean, euskara maitatu eta zabaldadin ahaleginak egitea. Baina, berriro diot, mereziko al luke horrenbesteko azalpenik ematea gorrotoa besterik luzatzen ez digutenei? Agian, behin edo beste, halakoei erdaraz epelak bota beharra egongo da, baina, gehienetan, jaramonik egingo ez bagenie ("no hay mayor desprecio que no hacer aprecio") asmatuko genukeelakoan nago. Berandu baino lehen suntsituko baitira horien mesprezuzko olastak eroen hondartzan.

Xabier Gartzia

ITAKA PUB

Arratsaldeko 6etatik goizalderarte

Zaldizurreta, 3. 16 03 40 Tlf.
BEASAIN

HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

Ba al dakizu...?

⇒GIZARTEA

□Beasaingo CAF enpresak %17 handitu du aurtengo lehen 6 hilabetealdian bere *cash-flow*-a eta 1.726 milioi pezetan ezarri da. Mozkinak 1.105 milioi-koak izan dira, hau da, iazko epe berean baino %25,1 gehiago. Fakturazioari dagokionez, elkarte gipuzkoarrak %24ko hazkundea lortu duela esan behar da. "Aristrain" taldea, berriz, Gorporazio gisa konfiguraturik gelditu da. 80.000 milioi fakturatu berri ditu eta sarrerak gehituko ditu, debaluazioa dela eta.

□Ordiziako iraileko Euskal Astea ederki joan zen. Jendea barra-barra eta Azoka nagusiko lehiaketak arrakastatsuak: Ardilatxa Gazta Lehiaketan Julian Etxeberria berastegiarra suertatu zen irabazle; enkantean, gazta irabazlearen erdia eskuratzeko 390.000 pzta. ordaindu zituen Supermercados Amarak. Anselmo Perez eta Francisco Quiros-enak saritu ziren oiloen lehiaketan

□Herri berean dauden bosnien eta bertako Udalaren tentsioak azaleratu berri dira. 14 errefuxiatuak "iruzur-tuak" sentitu dira irailean eta beroien egoera larriaz ahazteaz salatu zuten Udala, baina azkenean gauzak bere onera etorri dira. Bestalde, herritar inizatiba bat sortu da bertako kaleetan geroz eta gehiagora dihoan droga trafikoaren aurka aritzeko.

□Ataungo "Oargi-Troskaeta" antolatutako mahainguruek jende ugari bildu dute. Batean Jonan Fernandez (Elkarrri) eta Juan Mari Tolosa (Gesto) izan ziren eta beste batean Eugenio Ibarzabal, Mario Onaindia eta Lopez Adan "Beltza". Ekintza gehiagore ere izan ziren, jendeari erakutsia beti.

□Urbiako aterpea itxi da udan Partzoneriaren



aginduz eta hori dela eta hika-mikak sortu dira aipatu erakundearen eta "fonda"ren jabe berriaren artean. Luze joko luke dena esplikatzek.

□Luze joko lukeen beste gai bat: ETAK 'iraultza zerga' eskatu zion Juan Antonio Arruabarrena, "Pastas Arruabarrena"ko nagusiari eta hori dela eta Lazkao utzi eta bere enpresa Zaragozara eramateko asmoak agertu zituen. Lantegiko CCOO sindikatuko

ordezkariak aldegitoko arrazoia estortsioa ez dela izan esan zuten. Lan-irregulartasunak direla eta, isun gogorrak izan ditu aurtan bertan Arruabarrenak. "Indar" enpresako lehendakaria den Larrañaga J.a. aldegitara zebilen 'zerga' hori zela eta Beasaindik azkenaldian, eta berriki bueltatu da. Goierriko 10 Udal printzipalenen arduradunak enpresariaren alde ateratu dira. Gai hau buruz asko hitz egin da Goierri ez ezik E.H.-an ere.

□Etxebizitzak ez baino garajeak nahi ditu Beasaingo Porteriako Bizi-lagunen Elkartek. Udalarekin bat ez dator eta etxebizitzaren bi bloke eraikitzearen aurkakoa da.

□Manuel Rocandio beasaindarrak irabazi du aurtengo "El Pais" egunkariko "El juego mas dificil del verano" lehiaketa, zeinak 10 milioi pzta. bidaietan eman dion. Zorionak!



⇒KULTURA

□Ormaiztegiarrek betidanik Parrokiako sakristian ezagutu duten Zumalakarregiren erretratu erraldoia (2 metroko altuera du), hemendik aurrera, euskaldun eta bisitari guztiek ikusi ahal izango dute Zumalakarregi Museoa. Hombrados Oñativia margolariak 1927.ean egindako erretratu hau ez zegoen lekuri proposenean. Orain, eskertzekoa den Parrokiko Komixioaren erabaki baten ondoren, egokiago zaindua eta, batez ere, guztiok ikusteko moduan aurkeztuko da Ormaiztegiko Museoa.

□Telebistari eskeinitako orrialde batean Segura Irratiari buruzkoak kale-ratu zituen uztailen bukaera aldera "Egunkaria"n. "Seguran egoitza duen irati euskaldunak (sic) bere lekua finkatu du Goierriko uhinen artean", zioen Koldo Goitia kazetariak. Bertako kide den Nikolas Iparragirrek zioenez, "Instituzioetatik ezer gutxi" lortzen dute, "diru asko mugitzen dituzten publizitate kanpainak entzun, entzun ditugu, baina ikusi ez". Iparragirrek argi adierazi du Segura Irratiak ez duela aberasteko helbururik: "Helburua ez da sozioen artean dibidendoak banatzea".

□Azken uholdeen X urteurrena dela eta Legorretako herrian zoritxar haren inguruko Argazki Erakusketa bat gauzatu nahi da. Informazio gehiago nahi duenak, jo beza Joxe Mari Lasa (Errota), Iñaki Nazabal edo Jose Juan Indiasengana.

□Uztaleko alean aipatu genituen irabazleak. Beasaingo "Ai geala" euskara-taldeak irailaren 3tik 20ra erakutsi zituen bere irudia identifikatzeko asmoz antolatutako logotipo-lehiaketara aurkeztu ziren lanak.

□Irailak 12an ospatu zen bigarren aldiz "Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketa"ren saribanatzea. Ekaitz Goikoetxea eta Aitor Sarriegi beasaindarrak eta Rufino Iraola zaldibiarra suertatu dira irabazle aurtengoan. Lazkao Txikiren familiartekoak izan ziren ekitaldian eta Kaxiano soinujoia ere tartean, zenduari eskeinitako kanta bat abestuz.



Rikardo Arregi saria GOIERRI-TARRARI. Hamabostekari 94ean!

Herri aldizkariei zuzendutako saria irabazi genuen Mikel Albisu eta Jon Mikel Arano aldizkari honetako langileok "Pagosa Okindegia, eguneroko ogia" izeneko iazko artikulua batengatik. Herri-aldizkarietakook abonatuak izan ginen epaimahaikoen partetik behintzat. Urteak daramatzagu aldizkaria argitaratzen eta sari honek gurea hamabostekari bihurtzen lagunduko digula espero dugu. Hortik dihoaz "tiroak" oraingoz: Goierriko Udal-ordezkariek adostasun batetara iritsiak dira dagoe-

neko, Goierriko herri bakoitzeko biztanleko 75 pzta. (3 milioi) jasoko genituzke datorren urtean eta baldintza batzuk beteko lituzkeen hamabostekari bat argitaratuko genuke geuk. Hitzarmena sinatu aurretik, ordea, Udalen onarpena falta da. Prestaketetan hasiak gaude eta Kilometroak-en zerbaki honen ondoren aldizkaririk ez dugu aterako, datorren urtarrila bitarte. Sareak, muturrak eta egiturak lotzen ariko gara. Lortuko al dugu denon artean oraingoan hainbeste aldiz aldarrikatutako hamabostekari normalizatu!

□Ordiziako Udaleko Kultura Batzordea esfortzu nabarmena egiten ari da ekialdeko folklore eta musika taldeak bertara ekarri. Gipuzkoa batean herri gutxi izango dira tamainako ikuskizu-

nak eskeintzen dituztenak. Aidanez, kontaktu bikainak ditu Jesus Mari Larizek. Txalogarria, benetan egiten ari direna.



Etxebizitza eza, migrazio eragile

Goierriko herri guztiek dituzte ataundar etorkinak. Askok izan dira gainera, ataundarrek, gainontzeko herri txikietakoek bezalaxe, bizi izateko tokitzat bailarako erdigunea (Beasain, Ordizia, Lazkao) hartzera bultzatu dituzten arrazoiak.

Bada ordea gaur egun, herri-tarrak Ataundik alde egitera behartzen dituen arrazoi kez-kagarri bat: etxebizitza berririk eza.

Inongo zalantzarik gabe esan daiteke, etxebizitza ezak Ataunen jendea migratziora bultzatu duela. Euren bizitza Ataunen egin nahi zuten hainbat herritarrek, azkenean, etsita, alde egin dute herritik. Zergaitik ez den etxe berririk egin?, norbaiti bizkarreratu behar al zaizkio erruak?, etxe beharrean dagoenaren besterena ez al da arazoa?, Udalak aurrikusi behar zukeen eskariari erantzuna?... Kontua da, batetik, norberak ahal izanda ere, Ataunen etxebizitza bakarrak egiteko erreztasun haundirik ez dutela eskein-



Futbol zelaia, etxe bizitza berrien zain.

tzen Arau Subsidiarioek, eta bestetik, beti ere errezagoa dela Udalak edo denadelakoak etxeak noiz egin eta giltzak jasotzeko zai egotearen lana baizik ez hartzea, kooperatibetan edo promotore lanetan bildu eta norbera buruaustetan sartzea baino.

Une honetan ordea, argi izpirik somatzen da mendi arte hauetakoon gerorako izanaren ziurtatzeaz. Aurten bertan, dagoeneko etxebizitza baka-

rreko lau etxe ari dira eraikitzen jabego pribatudun lurretan, sei bizitzadun etxe bat ere ari dira egiten botika aurrean, aparkaleku ondoko bizitza bakarrek etxeak ere eraikitzen hastear daude, eta azkenik, epe laburrean irtenbiderik egokiena eskei-niko lukeen futbol zelaiko etxe berrien eraikuntza, tramitatzen ari da Udalak Eusko Jaurlaritzarekin. Hauek babes ofizialeko etxebizitzak izango lirateke.

Guzti hauek San Martinen kokatzen dira. San Gregorion, horretarako izendatuak dauden tokitan etxeak eraikitzeke espe-

rantzarik ez da galdu behar, eta Aian berriz, orain bertan bizi direnei urte askotarako bizitza opatzea beste erremediorik ez dugu ikusten; honez gero maiztergotza utzi eta etxe-jabe egin diren gehiengoaren ondorengoek baserriei zutik eutsi diezaieten animoa-rekin batera.

Joxe Begiristain

Ormaiztegi

San Migel joan, San Andres hurbilago

Badira hainbat gauza ormaiztegiarrok, hegoaize eta usoez gainera, udazkenaren etorrerarekin lotzen ditugunak. Hauetakoa bat San Migel edo Mikel Deunaren ospakizuna eta zagiardoa ditugu. Garai batean festa nagusi, azken bi urteotan ohitura berreskuratzen ari da eta honen lekuko aurreko irailaren 25a.

Iaz bezala toka eta mus lehiaketak izan ziren egunean zehar; ilunabarrean Xabin Ezkurdia, J.M. Cuadrado, Jon Mikel Murua, Patxi Azedo, Joseme Elizegi eta Ander Murua sukaldariek prestatutako "Ormaiztegiko odolkia" (udazkena iritsi denaren beste ezaugarrietako bat), marisko krema eta makailoa dastatzeko.

Eskubaloia ere oporrak amaitu eta

egunerokotasunaren itzulerako zeinua da. Aurten, joan den denboraldian 2. maila Estatukoa galdu ondoren, Gipuzkoako lurralde mailako lehenengoan arituko da Lancia-OKE taldea, gazteak bigarren mailan ibiliko diren bitartean. Ambrosio Iñaki Apaolazak zuzentzen duen lehen taldeak aurreko maila bertera bueltatzea du helburu, herriko jendea oinarri duela.

Honetarako 12 taldetako ligari lehenengoan artean amaitu beharko du, ondoren Bizkaiko bi, Arabako bat eta Errioxako beste batekin igotzeko bi postuetako bat lortzeko borrokatzeko. Ligari urriaren lehen asteburuan emango zaio hasiera eta jende berririk ere izango da, gazte-mailatik helduak: Alex Olaizola, Garikoitz Cuadrado, Aitor Sagarna, "Tobi", Xabier Lasa eta

Juan Carlos Diez (hau erretiratu eta berriro itzuli dena). Taldea utzi dutenak, berriz, Joseba Peralto, Imanol Leturia, Gorka Mendia eta Axier Zabala dira.

Amaitzeko, askok gogotan izango duten zerbait, eta dudarik gabe garai-koa dena. Bi hilabete baino gutxiago gelditzen dira San Andresetarako (gutxiago izotzak hasteko) eta dagoeneko antolatzaileek urrirako bilerak egiten hasiko direla dei egin dute. Adi, beraz, egunei eta parte hartu festa herrikoia- nahi izanez gero.

Iñaki Leturia

Kantillape berritua...

Hauxe duzu Itsasondoko Kantillape berritua. Herriko sarrera honi beti deitu izan zaio horrela, nahiz jende askok ez jakin. Beti izan da, ordea, Kantillape kasu haundirik egin ez zaion tokia.

Azken urte hauetan herriko zabortege txiki bihurtua zegoen, eta ohitura horri ateak itxi nahian, herriko Udaletxeak bazter hori txukuntzea erabaki zuen. Txukunketa lan hauek ez dira nahi bezain azkar bukatu, baina udarekin batera paseorako prest gelditu da. Herritik hurbil, deskantsurako ere toki polita geratu da orain Kantillape.

Oraintxe kontatuko dizugu, lehengo Kantillape zaharrari itxura aldatzeko zer erabili diren: lehen lehenik, lehengo lurrak garbitu egin dira eta belarra bota lurrean; guztira 2.200 metro karratu txukundu dira. Zelai honetan, belar berria botatzeaz gainera, honezkero bueltatxo bat egin baldin baduzu, konturatuko zinen arbola landare dexente sartu direla. Guztira 200 landare inguru, klase eta mota guztietakoak. Eta hauen itzalean, patxadan egon nahi duenarentzat banku lasaiak.

Lehengo bideari eutsi egin zaio, inguru guzti hau aldenik alde zeharkatzen duen grabilazko bide batekin. Pa-



seorako toki polita, akaso txiki samarra, baina lehengo Kantillaperen neurriei eutsiz, beste era batera ikusten da orain herriko sarrera. Nahi duzuenean bisitatu!

... eta "Kantillape" berria

Kantillapeko parke berriaren kontuak esan dizkizugu eta orain "Kantillape" aldizkari berriaz aritu nahi genuke, labur bada ere. Tokiak eman zion izena hilerokoa alea eta urten behin berezia den herriko aldizkariari. "Kantillape" k badu beste ale bat, aurtengo abuztuaz geroztik. Urteroko ohiturari jarraituz, festa garairako ale berezia eta berria argitaratu da. Aurtengo ale berezian, era askotako kontuak bildu ditugu, ia guztiak herriari lotuak.

Ale berezi honetan daude, esate baterako, herriko kirolaririk gehienak, edo herriak azken mende honetan izan dituen aldaketa demografikoak. Horrekin batera herritarrek kanpoko herriak nola ikusten dituzten jakiteko aukera ere bada: Valentzia da aurtan herritarren begiekin ikusi ahal izan duguna. Kantillape bezala, herrian bereziak diren beste toki batzuren istorioak ere jaso ditugu ale honetan. Baina herritik kanpoko kontuak ere badira tartean: Y grekoaren kontuak eta Donostia munduan ederrena den hiria dudan jartzen dituztenen kontuak.

Ez dakit Murumendiko Dama ikusteko modukoa izango litzatekeen ala ez, baina bere kontuak ere jaso ditugu eta herritarrek kanpokoie zer erakutsiko lieken ere garbi azaltzen da, inork turismoa egin nahiko balu ere. Eustakio Mendizabal hobeto ezagutzeko modua ere izango duzu ale honetan, eta hori guztia gutxi balitz, Itsasondok urtea nola pasatzen duen kontatzen digu Mikel Mendizabalek bertsotan. Hor beraz, "Kantillape" berria irakurritz, Kantillape berritua ezagutzeko modua.

Arantxa Arza

ALTZAGARATE JATETXEA

- Leku aproposa bataio, jaunartze, eztaiak, e.a. ospatzeko
- Bazkari, afari, meriendak...

88 41 96 Telefonora.

ALTZAGA.

ERLOJUTEGIA BITXITEGIA GARMENDIA

Nagusia, 20 tel. 88 15 32 BEASAIN

Eraikuntzak P. ARMENDARIZ

Filipinas, 13
ORDIZIA

Tfnoa: 88 49 50



ANTZERKI-LAN BERRIA:

“Egon hadi lo eta jango diagu mehe”

Idiabazbalgo gazte talde batek, nolabait beraien atsedenaldiari probetxurik hoberena atera nahian, antzerki ikastaro motz bat egin zuen Lurdes Intxausti, bertako antzerkizale ezagunaren eskutik. “Egon hadi lo eta jango diagu mehe” obra, “Bi Maria udaberrian” antzezlaren ondotik datorkigu.

Mundu honekiko sentitzen zuten interesak mugiturik, eta ikastaroari fruitua ateratzeko asmoz, batipat haurrentzat idatziriko obra bat lantzen hasi ziren. Hilabete batzuren buruan, ordubete eta hamar minutuko iraupeneko antzerki obra prestatu zuten. Hasieran hobby bat izan behar zena, lan serio bilakatu zen. Euskaldunontzat esaera zaharrak guztiz esanguratsuak izanik, lanari hobekien zertorkion hauetako bat aukeratu zuten: “Egon hadi lo eta jango diagu mehe”.

Berezko obra, Andu Lertxundiren “Korbata saltzailea” da, zeinaren haria korbata saltzaile baten inguruan mugitzen den. Beraian lanean ere oinarri-oinarrian protagonista berbera da, baina gero honen inguruan beste zenbait esketx erantsi dira. Honela, hasiera eta amaieran gauza bera dioten arren, azken emaitza ezberdina da. Antzeslan honek badu bere mezua: alegia, jendearengan komunikabideek eta batipat telebistak duen eragina. “Mezu hau dela eta, hurrek ikusi eta barre egiten



“Aktoreak”, Lurdes Mintegi, Irantzu Arrizabalaga, Loinaz Urrestarazu, Aner Elorza, Maitane Urteaga, Leire Goiburua, Lierni eta Aloña Galarraga eta Lurdes Intxausti; laguntzaileak, Estibalitz Katarain, Idurre Galarraga eta Alberto eta Jose Luis Inza. Trikitilariak, Joseba Iparragirre eta Asier Alustiza.

duten arren, obra, agian, helduentzat aproposagoa suertatzen da. Errealitatearekin duen lotura zuzena da bertan saltzaile baten bizimodu latza isladatzen bait da. Akaso, kontrasterik handiena, pertsonaia nagusia korbata saltzaile bat izatea datza, gaur ez bait da horrelakorik”, dio Lurdesek.

Antzezlan hau herri mailan aurkeztu dute soilik uda partean eta jendearen harrera guztiz beroa izan da hiru eman-kizunetan. Kontutan izan behar da “Izal”go herriari aspaldidanik dator kiola antzerki munduarekiko zaletasuna. Obra hau kanpora ateratzeko asmorik duten galdetzean, zailtasun handiak ikusten dituztela diote: “alde

batetik esan behar da, gehinek ikasketak dituztela tartean. Bestetik, lagun asko (9 “aktore” eta 4 laguntzaile) eta materiale asko (eskuz eginak) izateak garraio arazoak dakartza. Udalak gastuetan lagundu duen arren, diru pittin bat ere beharko genuke kanpora ateratzekoan, eta nahiz eta eskeintza hori tentagarria izan, ez dakigu oraindik posible izango ote den”, diote “axariek”.

Idiazabalarren helburua ez da ekonomikoa izan, kulturala baizik. “Herri mailan giroa sortu nahi izan dugu alde batetik, eta bestetik, frogatu dugu gazte-jendea ez dela beti taberna-zuloetan egoten, baduela zenbait

kultur ekintza egiteko gogoia. Gutako gutxi batzuk aurretiko esperientzia txiki batzu izan baditugu ere, ez gara profesionalak, baina badago ilusio eta gaitasunik. Antzerki mundua oso baliagarria da helburu hauetarako eta nire ustez eskoletan ere bultzatu beharko litzateke”, gaineratu du zuzendariak.

Garbi dago edozein herriri horrelako ekintzek izugarritzko indarra ematen dietela, hau da, giro berezia sortzen dela bertako jendearen artean, eta batipat geurea bezalako herri txikietan.

Estitxu Imaz



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

Bodegon
GOIERRI
JATETXEA

Kale Nagusia, 20

Tel. 88 00 00

BEASAIN

Jaietako Egitaraua

Urriak 5, asteartea

Arratsaldeko 7.etan buruhandiak eta soinu mota guztiak; 8etan mondejuak probatzea; gauean, Tapia eta Leturia.

Urriak 6, askeazkena

Goizean Diana; 12etan Alkatearen aureskua, Dantza Taldea, Txalaparta, Bertsolariak; Ondoren, Iztueta Fundazioaren I Idazlan Sari banaketa; 6etan, 1. mailako pilotari profesionalen partidua; 11etan Egan musika taldea.

Urriak 7, osteguna

11,45etan Iztueta Dantza Taldearen emanaldia; ondoren xexenak, potto-kak; 4etan txirrindu lasterketa, 14 urte bitarteko herriko haurrentzat; 5etan ume-jokuak; 5,30etan Herri-kirolak; 7,30etan eta 11etan Imuntzo eta Beloki trikitilariak.

Urriak 8, ostirala

7etan kalejira eta frontoian 2. herri-tarren arteko Eskalada txapelketaren semifinalak; 22etan herrien arteko pilotaren finalak; 11etan Minxoriak musika taldea.

Urriak 9, larunbata

Goizeko 11,30etan haurren arteko futbito txapelketaren finala; 4,30etan herritarren Herri kirol saioa; 6,30etan



pilota partiduak: Iribarren-Taberna / Errandonea II-Irigoien; ondoren pilota partidu estelarra: Retegi II-Maiz II / Ladoutxe-Errandonea; ondoren, II Herritarren arteko Eskalada Txapelketaren finala; 22etan Bertsolari Gazteak; 23,30etan Turruttak musika taldea eta mozorro lehiaketa.

Urriak 10, igandea

Goizean Diana; 12,30etan Sega apustua: Erasun-Eizagirre /

Gorriñe-Arru; 13etan Txikiteoa Koxkola txarangarekin; 14etan Bazkaria; ondoren jokuak: karretilla karrera plaza aurrean, futbol zelaian, xexenei adarretan zenbat uztai sartzea; 6,30etan Gipuzkoako Iztueta I Auresku Txapelketa; ondoren Koxkola; 12etan Drindots musika taldea, atsedendian Playbacka; segidan galtzontzillo eta kulerotan lasterketa; goizaldean txokolata jana; goizeko 7etan xexenak eta Mondejuaren Entierria.

GURPIL BIZIKLETAK

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51

20200 BEASAIN



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99

Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA

KALITATEZKO ELIKADURA, OSASUNAREN OINARRIA



GOIHERRIKO MENDI - NEKAZARITZA ELKARTEA
SANTA MARIA KALEA, 4 - TEL. 88 86 77 88 17 93 - 20240 ORDIZIA

**Baserritar: egin erakargarri zure produktua.*

**Erosle: bertako produktuan dago zure aukera.*



NEKAZALTURISMOA

ETB-N PELOTARI LEHENTASUNA EMATEAREN ALDEKOA JAI-ALAI-KOA

Martzial Garmendia: "Ordiziakoa bezalako frontoi gutxi egongo dira."

"Jai-Alai" Pelotazale Elkarte 1970 urtean sortu zen bertako bi koadrilen zaletasunak eraginda. Berehala hasi zen Elkarte

nean, pelota bultzatu nahian. Horrek ez du esan nahi ordurarte bultzatzen ez zenik euskal kirol hau Ordizian.

Orain 10 urte sartu zen Martzial Garmendia (44 urte) pelota mailako ordezkari bezala Jai-Alairen zuzendaritzan. Gazte-gaztetandik datorkio pelotarako afizioa, afizionatu mailan ez du jolastu, baina, gazte eta zahar, herrian ziren guztiakin jokatu du. "Eskolatik atera eta frontoira joaten ginen beti; gainera, lehen besterik ez zen, futbola edo pelota. Karreazpi eta zimintorioetan galdu bada ere, beste zenbait alorretan ugaltu egin da pelota.

Kirol gehiegi Ordizian

Soziedadearen izenean irakasten die Martzialek gazteei eta kanpora mugiarazten ditu, Gipuzkoako eta "Vasca"ko Interklubak jokatzeko dituzte, 2 urtetan atera dira txapelak gipuzkoar kategoriatan, 2. go Euskadi mailan eta "hor gabiltz, oso-oso ondo ez bada ere, ondo bai", diosku.

Oporren ondoren, hasi berriak dira pelotaren maisu hau eta bere ikasleak, 8 urtetik 25 bitartekoak. Ordiziakoak pena handi bat dauka, "eta hori beti eta denei esaten diet: hemen gertatzen da kirol gehiegi dagoela, niretzako behintzat. Federakuntzakoiei esaten diet zer dagoen, zenbat kirol elkarte dauden 9.000 biztanleko herri honetan, eta ezin sinisturik uzten ditut. Baina hala da. Oso zaila da hemen figura bat ateratzea, kirol gehiegi daudelako. 8 urtetatik 13 bitartera badarabilzkit umeak, txapelketak irabazi ditugu,


baina gero, zer gertatzen da: saskibaloia, eskubaloia, futbolekoak etortzen dira eta, nola diren talde handiagoak, bada, kendu egiten dizkizute mutiko horiek. Batzuk segitzen dute pelotan eta gure joku hau ez da galduko. Beti esan izan diet elkartekoei, nik ardura hau utziko banu, beste esku jakin batzuetan utziko dudala". Bestela ez du utziko. Pentsa ze afizioa duen, ezaguna baita frontoian pelotak eman eta uzteagatik.

Edari eta juerga gutxi

Azken urteotan bere "eskutatik" atera diren pelotari onentsuenen izenak ematearen aldekoa ez dugu Martzial. "Zeren niretzat denak onak dira. Destakatuena? Arbillak itsasondoarra, Aierbe, Olazabal eta Vendoiro aramarrak... Baina inor ez dut nabarmendu nahi. Denak dira onak. Nik ez dakit suertea edo zer dudan: 18 urtetik gorako 9 pelotari dauzkat eta inork ez du erretzen, edan eta juerga gutxi. Hori da txapelketa baino inportanteagoa". Kirola egitekotan kendu egiten da bestea.

Hori zaila ez al den gaurko gazteekin, galdetu du GOIERRITARAK. Martzial Garmendia: "Zaila da, baina saiatu beharra dago: asteroko partidua badu gazteak larunbatetan, ostiralean ez da irtengo eta larunbatean goiz joango da ohera, nekaturik dagoelako kirola egiteagatik. Hori oso positiboa da.

G.- Nola ikusten duzu Goierriko pe-



lotaren panorama?

M.G.- Oso ondo ikusten dut. Geroz eta gehiagora goaz: orain arte ez zuten pelotaririk Ataunen, eta umeekin hasiak dira piskanaka, Lazkaon ere orain 5-6 urte hasi ziren, Beasainen ere ondo, Idiazabalaren oso bikain, Segura hobetogo ("Interpueblos" --herrien artekoa-- irabazita iaz eta 3. aurten, hor dago Alustiza eta hor Imaz bat, profesional bidean, berak oraindik nahi ez badu ere, neretzako oso ondo egiten du), Zaldibia ere ederki... Herri bateko

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA

B i O K, c. b.



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN



Giro on eta jatorra

Tlf.: 88 20 23
Iturrioz Kalea, 11

BEASAIN

pelotari profesional batek beti egiten du herritarrak erakartzeko. Alustiza batek, eramango du jenderik frontoira. **G.-Telebistan sarriago agertzeak ere bai.**

M.G.- Piskanaka sartu da telebistan. Parragarria zen lehen: pelota gure kirola izanda, telebistan saskibaloitza ematen zuten. Nik ez diot ezer kentzen saskibaloitari eta beste kirolei; lehengo aste batean Argentina-Uruguai futbol partidua luzatu eta pelota partidua osoa ezin ikusi guk. Lehentasuna ematen diete besteena, eta ez!, gure kirola atzean. ETB eta pelota E.H.koak dira, eta guk pagatzen badugu ETB, gurea eman beharko lukete gehiago, nere us-tez. "Asegarce"koekin, zaleekin hitzeginda dakit Estatu espainolean izugarri ikusten dela orain pelota. Andaluzia, Almeria eta horietan asko jolas-ten da, txapelketak daude Valentzian, Madrilan, Bartzelona eta besteetan. Eta ikusi egin behar da ze indarra ari den hartzen "Asegarce".

Kilometroak-ekin bat

"Kilometroak 93" erakundeko kultur komixioan sarturik dago Martzial. Jai-Alai-k hartu zuen urte honetan an-

tolatu behar zuen ekitaldi guztietan Km-en enblema sartzeko konpromisua. Gipuzkoako eskol-haurren txapelketa, Gipuzkoako emakumeentzako gomaz eta palaz txapelketa, 3. eta 4. postuak "Interpueblos"en, herriko festetan eta euskal festetan profesio-nal arteko partiduak; eta herenegungo

Ehun urte pelotakadaka

Ordiziako "Beti-Alai" frontoiak ehun urte betetzen ditu aurten. Inazio Nazabal eta besteren zuzendaritzapean hasitako Jai-Alaik, eskuzko pelota irakasten Jose Garmendia profesionala zuela, Zarragoitia, e.a. eza-gutu zituen bere kideen artean. Bertako pelotariaren abizenak, Ezeiza, Jose Garmendia profesionala izana, Serafin Apellaniz festetako partiduen antolatzaile, Ontoria, gerra garaian he-men bizi zena, eta beste zenbait.

Profesionalen arteko partiduak, Jaietan eta Euskal Jaietan izan ohi dira beti Ordizian. Hona denak etorri dira, onenak: Atanotarrak, Gallastegi, Tapa, Arriaranak... Pasa berri diren Euskal Jaietan Beloki izan dugu ber-tan, esaterako. Elkarrekin listoa goran

urriak 1erako, proposatu eta "Asegarce"ko ondo ikusia zeukan, se-gurua zuten erredakzio hau ixterako, jaialdi bat jarriko zuela ezer kobratu gabe, etekin guztiak Km-entzako di-rela. Bergarilla, Alustiza edo inguru-koak etorriko zirelakoan zeuden.

jarri du eta hori badakite nonahiko zaleek.

Ehunurteurrena dela eta, Jaialdi bat antolatzekotan dira elkarrekin, "erremonte eta zesta punta ekarri nahi dugu, Ordiziakoa bezalako frontoi gutxi izango dira, hemen diren pelota mota guztiak jokatu baitira: pala motza, luzea, paleta, erremontea, joko-garbi, xare, (hauek gutxi xarego) frontenis, emakumeen paleta, pare bat aldiz gutxienez. Goierri, "erreminta"ren (pala eta pala motza) egoera ona dela diosku Garmendiak eta adibidetzat jartzen digu Euskal Selektzioarekin joandako eta Kubako Munduko Txapelketan izandako Tomas Lakalle. Eskuzko pelota da "Jai-Alai"ren kuttuna, hala ere.

Jon Mikel Arano

Bi lerrotan


□93-94 futbol denboraldia indar ber-rituta hasi du S.D. Beasainek. Periko Alonso ezaguna entrenatzaile postuan izateaz gain, 11 jokalar berri ekarri dituzte taldearen indarra, gaztetasuna eta ilusioa gehitzeko asmoz. Entrena-tzailearen helburua momentuoro bere lekuan egoten jakingo duen talde lehiakor eta serio bat lortzea izan da. Tolosarra ez da emaitza eta sailkape-netaz hitz egitearen aldekoa, hoiek

denborarekin etorriko direla dio.

□Aurreko denboraldiaren azken oihartzunak ez dira batera txarrak Goierriko kirolarentzat. Honela, Nekane Kerejeta ordiziarrak bigarren postua lortu zuen Gipuzkoako esko-larteko igerilari osoaren txapelketan. Hiru modalitatetan, bizkar, bular eta askean, lehena izan bazen ere, txime-leta erara egin zuen laisterketa kaxka-

rragaitik geratu zen bigarren postu ho-rretan.

□Ordiziako ATOL eskubaloitza taldeko J. A. Marcos, Javier Dorado eta Iñaki Insausti, Eibarko Arrate taldearekin aritu dira aurrendenboraldia egiten. Mailaz igotzeaz gain Gipuzkoako bi-garren taldea beraietan fikatzea ez da batera emaitza txarra bere bigarren denboraldia duen taldearentzat.



ZERBITZU OROKORRAK

ERAKUNTZA, MONTAJA ETA MANTENIMENTSUAK

EFZ

* Karakol, zeharkako eta abar eskilarak.

* Entreplanta estrukturalak:

⇒ Igogailu edo montakargak.

⇒ 2.000 Kgmrarteko mota guztietako pluma besodunak.

⇒ 3.000 Kgmrarteko monorrailek eta puente gruak.

Ibabe Industrialdea, 7
LAZKAO

Tfona: 88 86 59
Faxa: 16 00 34

NAZARIO TELLERIA, MUSIKARIA ETA GIZON POLIFAZETIKOA

“Zortzi urte nituela jo nuen txistua estrainekez kalean”

Idiazabaldarren artean aski ezaguna da Nazario Telleria, izan ere herriko postaria eta

barberoa izateaz gain, Txistulari taldearen irakasle eta zuzendaria dugu berau.

7 urte zituela eman zituen lehen urratsak musika munduan: “*Etxean giro berezia zegoen, nire aitak eta osabak ere txistua jotzen baitzuten; hauek erakutsi zidaten, eta erakutsitakoarekin moldatu nintzen kalean estrainekez txistua jotzeko, 8 urte nituen orduan*”. Gerora pianoa jotzen ikasteko gogoa ere sortu zitzaion Nazarioi eta Idiazabalen bertan hasi zen pianoa ikasten Fabiana Zudaire irakasle zuelarik, “*Idiazabalen urte pare bat egin eta Ordiziara joan nintzen piano ikasketak jarraitza, baina azkenean Donostiako Kontserbatorioan jarraitu beharrean aurkitu nintzen*”.

Hala ere txistulari lanak eginez jarraitu zuen bitartean, “*12 urte nituela herriko plazan jotzen nuen, igandea izaten zen lan gehien ematen zuen eguna, goizetan kalejira jotzen genuen, eta egun berezia tokatuz gero beste piezaren bat ere bai. Arratsaldean gramolarekin tartekatuz sueltoko piezak jotzen genituen. Dantzariak izaten zirenean ere jo beharra, eta askotan nire aita lanean tokatzen zenez bakarrik moldatu beharra izaten nuen*”. Gaur egun, aldiz, esan digunez lan gutxiago izaten da.

Aurrean aipatutakoak ezezik, irakasle lanak ere oso gaztetan hasi zituen Nazario. “*Nere aita eta osabak eskolatik irtendakoan solfeoa erakusten zuten eta hauei lagunduz eta ezin zu-*



Ezkerretan Nazario, eskubian bere semea eta erdian, eserita, elkarriketatzailerak. Foto-Etxe

tenean ni joanez hasi nintzen 14 urte nituenean eta gerora nire gain geratu zen irakasle lan hori, askotan ni baino zaharragoak zirenei ere erakutsi beharrean suertatu nintzen”.

Eta lan horretan jarraitzen du, “*Gaur egun hiru talde daude ‘Izal’-en, batetik Udaleko banda osatzen duena, bestetik oraindik ikasten ari direnak, nahiz eta hauek ere zenbait kalejiratan jotzen duten eta azkenik oraindik ikasten ari*

direnak, guztira 25 bat izango gara”. Hau mantentzea zaila dela ere esan digu Nazario, izan ere jendeak gorabehera asko izaten ditu. Musika munduan egiten dituen lanak ordea ezin horretan utzi, izan ere Parrokiko Korua ere berak zuzentzen du egun; lan hau orain 10-15 urte hartu zuen, eta egungo egoeraz galdetuta zera esan digu, “*Korua pixkabat zahartzen ari da, orain gutxi neska berri batzuk sartu dira eta gizonezko batzuk ere ez litzaizkiguke gaizki etorriko*”.

Hala ere Nazario lanean jarraitzen du, tarteka, gainera, bere osaba den Bitorianok organoa ezin baldin badu jo, bera izaten da lan hori hartzen duena. Bestetik, eskuartearen dituen proiektuen artean “*Idiazabaldarren Martxa*” moldatzeko asmoa duela ere jakin dugu, nahiz eta martxa idatzia dagoen beste ikuteren bat ere ematekotan dira oraindik.

Xabier Urteaga

“Ixilkara”, disko eta guzti

Gerora Nazario Txistulari talde batetako partaide ere izan zen, Goierriko beste txistulari batzuekin batera “Ixilkara” taldea sortu baitzuen. “*Talde hau Seguran urtero ospatzen den Euskadiko Dantza Txapelketarekin lotua dago, izan ere bertan txistua jotzeko bildu ginen taldeak sortu genuen Ixilkara*”. Partaideak Nazario, Joxe Mari Telleria segurarra, eta Ordiziako Joxe Manuel Bergara eta Xabier Lekuona ziren; aurrera jarraitu

zuten zenbait leihaketetan parte hartuz, “*hasierako leihaketetan lortutako emaitzek aurrera egiteko gogoa eman ziguten eta Bilbon 3. saria lortu genuen*”. Baina taldea ez zen hortan geratu eta disko bat ere grabatu zuten Bartzelonan. Gerora denbora dexente jarraitu zuten batera, baino taldekide batek alde egin eta jende aldaketa batzuk izan ziren tartean. Egun, biltzekotan, Segurako dantza txapelketan biltzen dira.

BITORIANO, IDIAZABALGO TELLERIATAR MUSIKARIETAKO BAT: “Musikatik ezin, bestela atera behar zen lehen bizimodua”

1944. urteaz geroztik da Bitoriano Telleria Idiazabalgo organista. Laster 50 urte beteko ditu ofizio honetan, baina urte

hauetan zehar, beste zenbait lan ere egin izan ditu, musikatik ezin bizi. Ezinbestean.

9 urte zituela, orduan musika irakasle eta organista zen Jose Galo Zudairek animatuta hasi zen Bitoriano pianoa ikasten, eta bai serio hasi ere: “Eskola utzita joan nintzen lehenengo egunetan pianoa ikastera, eta pianoko irakaslea konturatu zenean, aurrerantzean eskola utzi gabe joateko esan zidan”. Eta pianoan pixka bat trebatu zenean, armonia jotzeari ekin zion. “Goizeko 8etako meza nagusian jotzen nuen hasieran eta gehienbat gregorianoaren antzeko kantuak jotzen nituen ‘Santo Esteban’ izena zuen liburu handi batetik”, adierazi berri dio Idiazabalgo Xabier Urteagari, “Egunkaria”rako.

Armoniatik organorako saltoa, egun Idiazabalgo elizan dagoen organoa jarri zutenean egin zuen. Hasieran nahiko zaila egin zitzaion hanken bidez jotzen diren pedalak erabiltzea, baina nola hala moldatu zen eta bere kasa ikasi zuen. Armonioa nahiz organoa jotzen, lehenago orain baino lan gehiago izaten zuen: “Igandero meza nagusia eta bezperak izaten ziren, maiztzean egunero loreak, eta beste zenbaitetan bederatziurrenak ospatzen baziren, egunero joan beharra izaten nuen”, azaldu du.

Organista ezezik, txistulari trebea izandakoa ere bada Bitoriano. 20 urte zituela lortu zuen Beasaingo txistulari izatea: “Orduantxe txistua ikasten hasi berria nintzen eta herrian zegoen txistulariak eman zidan Beasaingo plaza-
ren berri”. Hilabeteen jo eta ke aritu

zen txistuan eta, pixkanaka gehiago ikasteko asmoz, Ansorena txistulariaren gana joatea pentsatu zuen, baina aurretik Beasaindik epaimahairako deitu ziotela eta, ezin izan zuen berarekin ikasi. Hala ere Bitoriano moldatu zen: “Segurako txistulari batek minueto baten partitura eman zidan. Hasieran nahiko zaila iruditu zitzaidan, baina azkenerako buruz ere ikasi nuen eta horretarako pianoa jakiteak asko la-



gundu zidan”. Gerora 16 urte pasatu zituen Beasainen txistulari lanak betetzen. “Igandero kalejira jotzen nuen. Gainera uda partean ‘jueves de moda’ deitzen zioten dantzaldia ospatzen zen eta han ere jo beharra izaten zen”.

Idiazabalen bertan, organista lanaz gain, txistulari eta musika irakasle lanak ere egin ditu. Rikardo eta Nazario bere anaiekin jotzen zuen txistua eta

hiruren artean, bata besteari erakutsiz moldatzen ziren: “Nere anaia Nazario Donostian ikasten zuen txistua eta handik ekartzen zituen partiturak eta haietatik jotzen genuen”. Hirurek taldean herritik kanpora ateraldi dexente ere egin zituzten. Irakasle lanari dago-kionez, egun txistua eta solfeoa erakusteko erabiltzen den aretoa berak eskatu zion Udalari eta han jarritako pianoarekin neska-mutikoei solfeoa eta txistua irakasten zien.


Musika mundua gustokoa izan arren, beste lan batzuk egin beharrean egon da familia aurrera ateratzeko: “Bizimodua ateratzeko beste lan batzuk ere banituen, kamioiarekin hasieran eta taxista moduan gerora. Izan ere, musika mundutik bizitzea nahiko zaila zen lehen”.

Gustoko musikagileak

Pianoa, organoa, txistua eta biolina pixka bat jotzen badaki Bitoriano eta musikaririk gustokoena zen duen galdetu diogunean zera erantzun digu: “Musikari onak, asko dira eta guztien artean batzuk aipatzearren, hauek aipatuko nituzke: Bach, Beethoven, Chopin, Cesar Franck... eta beste asko”. Hala ere, guzti hauen parean jarriko luke armonia jotzen hasi zenean erabiltzen zuen liburu handi eta nota laukidunezko egilearen izena. ‘Santo Esteban’ izena zuen liburu zahar haren egilearena. Liburu hari asko zor omen dio Bitoriano.

Karta bereziaz

gain,
bertako
babarrunak



Gudarien Etorbidea, 4
Tel. 888511

eta ehizea,
bere
garaian
enkarguz

20240 ORDIZIA
(Gipuzkoa)

URBITARTE SAGARDOTEGIA

*Sagardo denboraldiz kanpo ere irekirik
asteburuetan, betiko sukaldaritzarekin

*Enkarguak: 88 83 31

*ERGOIENA AUZOA Tlf: 88 27 19
ATAUN



JUAN SAN MARTIN, ARARTEKOA, ETA

Pizkunde garaiko bi mahai Ataunen

Une honetan Euskal Herri gehienak zerbait badaki Ataungo mahai errenazentistei buruz. Guk ordea, zuzenean jakin nahi genuen Goierriko ondare bitxi honen berri. Aurkitu zuenarengana jo dugu, Juan San Martin Ararteko J. arengana, aurkikuntzaz gainera bi mahaien berreikuntzen berri eman diezagun.

--San Martin jauna, kontu zaiguzu nola aurkitu zenituen.

--Inazio Auzmendi alkate zela, Arartekotzan nere ondoko den Jesus Mari Arteagak bere herkideagana jo zuen, J.M. Barandiaran ikastetxean zenbait berritze eta hobetze lortzeko laguntza eske. Hori zela eta, 92. urtean zehar bizpahiru aldiz joan ginen, eskola horren premiak hurbildik ezagutuz laguntzak lortzeko. Horietako batean, Inaziok, Kontzeju berritua erakutsi nahi zigun eta berritze lanak nolakoak izan ziren jabetzeko ganbarea ere erakutsi zigun eta orduan konturatu nintzen han bazterturik zeuden bi mahaiez. Zalantzarik gabe, biak ziren pizkunde garaiko estilodunak.

--Baina zure ustez, estiloak beste gabe urteak ere adierazten ote ditu?

--Zehatz ez baina hurbildik bai. XVI mendearen erdialdetik aurrera XVIII



mende hasierara arte erabili zen Euskal Herrian. Arkitekturan adibiderik ugari dugu, baina ez hainbeste haltzari edo muebleetan. Hauek aldakor direnez, batzutan estilo berriagoen eraginez kentzen ziren, orain Ataunen bezala, eta beste batzutan saldu edo trukean eman. Azken batean, berrizaleatasunaren eraginez galdu dira holako altzariak; baina, hori nekez gertatzen zaie arkitektura eraikuntzeri.

--Zer izan zen zure nahia, bi mahaiak aurkitzean?

--Lehen lehenik, Inaziori esan nion

beheko gela, areto edo nonbait tokia emateko. Zeren egoki jartzen ez den haltzariak betiko galtzeko arriskua du. Baina, berritzen ibili den arkitektoak ez zuen eman hortarako aukera handirik.

--Horregatik mugitu al zinen zure bulegora eramateko?

--Ez, ezta pentsatu ere! Arte balioak lekuan lekuko daude ondoen. Arteaz gainera historia ikertze lanetarako baliagarri direnez. Dena dela, ondoko aspetean ere kezkatutik nengoela aitortu behar dut, mahaiok zer burubide eramango zuten. Horregatik, hile batzu-

GARBI *autoserbitzua*



*Garbiketa, argiztaketa eta lehortze katea
*Pulitu eta briluztatzea
*Neumatiko eta olio aldaketa
*Espezialitatea: autoen barru, moketa eta tapizerien garbiketa
*Motoren garbiketa
Pol. Industrialak. ☎ 88 27 30
ORDIZIA



DOMINGO UNANUE PLAZA
Tf.: 88 93 25
20240 ORDIZIA

Irakur

Egunkaria
EUSKALDUNON



tara, mahaiok ea zertan ziren galdetu nuen. Leku berezirik ez ematekotan Euskal Herriko erakunderen batek erosteko jestiogintzan hasteko prest nengoela, holako haltzariak ez herbesteratzeagatik. Zoritxarrez, herbestea izaten bait da halako gauzak hartzen duten bidea.

--Eta zure proposamen horren ondorena zer izan zen?

--Auzmendi alkatetza uztekotan zen, baina interesarekin hartu zuen gaia eta sartuko zen berriarekin mintzatuko zela, gaia estudiantzeko; baina, edozela ere, Udalbatzarrari agertuko ziola. Sagrario Eskisabel alkate sartzean, berriak eta ohiak, bien artean pentsatu zuten herriko ondarea ez saltzea, bai

Mahaion edertasuna zertan datzan

J. San Martinen esanetan, mahaiotatik batek honako ezaugarriak ditu: Intxaurrez egina, ohol baka-
rrekoa, honako neurriz: 2,49 m. luzean eta 0,78 m. zabalean, alturaz 0,83 m.; lau bordoin-hanka, balaustre torniatuez; aurrekaldetik hiru kajoi zurajea ezarriak, bakoitzak kartela deritzan bi atalen barnean ronbo itxurazko gurutz bikotea apaingarri dutela; kajoi bakoitzak tiradera edo morrolloa jatorrizkoak, hirugarren morrolloa geroztikoa du.

Bigarren mahaiak, beste honako hauek: Intxaurrez egina, ohol baka-
rrekoa, honako neurriz: 2,55 m. luze eta 0,79 zabaleran, alturaz 0,81 m.; sei hanka ditu toskano erako zutabeen estiloz; zurajea bi mailatan apaindua du, aurrekaldetik bi kajoi dituela,

kartela geometrikoki gurutzatuz eginitako apaingarriak, bai aurretik eta bai atzekaldetik eta aldeetan bi lerrotako kartela soilak; jatorrizko tiraderak falta zaizkio, eta morrolloak ere bai; aipaturiko kartela apainduen azpikaldetik haritz hostoaren irudizko taila apaingarria lerroz.

Lehen mahaiaren ohola intxaur beltza da eta bigarrena zuria. Gaur egun nekeza litzateke neurri hoietako ohola emango duen intxaur arbolarik aurkitzea. "Baina mahai hoién estilo ezaugarritzat aipatu ditudan apaingarritzko tailu eta gainerakoak zerbitu arren, meriturik handiena egiturazkoa da, hau da, mahaiaren zurajea bere orokortasunean, eta hori bikain egina dute mihiztadura aldetik", diosku Juanito San Martinek, Arartekoaz gain Euskaltzaina eta arte kontutan ere jakitun denak.

ordea Udalak Ararteko Erakundeari utzi, jabetasuna galdu gabe eta eskatzen zaionean itzultzekotan. Hori zen proposamena eta hori ontzat hartu omen zuen Udalbatzarreko gehien-
goak.

--Ba, iskanbilarik aski sortu zuen...

--Bai. Kontzejuko sesiotik hasitako sesioak adarrak erakutsi nahi eta, guk,

inori adarra jotzeko gogorik ez; gauzak berez hortara etorri arren. Pozgarri izan zait bat batera herriak bere altxorra ikustea eta hortaz jabetzea. Orain badakit mahai eder horiek ez direla erraz galduko, gure ondarearen onerako.

Iñaki Arnaiz



S. A.

liburudenda

LIBURUAK
JOSTAILU DIDAKTIKOAK
ESKOLA MATERIALA
BULEGO MATERIALA

elosegi, 16 - ☎ 943 886500
20210 Iazkao - gipuzkoa

ZEPAI

jatetxea

Tlf. 80 10 98
IDIAZABAL



ARALAR

PAPERDENDA

- Bulegoko tresneria
- Ikastolako Materialak
- idazteko makinak
- Fotokopiak
- koadernaketak
- Liburuak

J.M. Barandiaran Enparantza, Tel. 88 12 40 20240 ORDIZIA

Central Hispano 24

Gerriko segurar-mutiloarra


Jose Ignazio Gerriko Enatarriaga idazlea Seguran jaio zen 1740 urtean eta, Madrilén ikasi eta 60 urte luzez Mutiloko apaiz izan ondoren, herri honetan hil zen 1824ean.

Igandeetako mezetako sermoian pulpitutik irakurtzeko Kristau-Ikasbide erraldoi baten egile dugu: "*Kristau-Doktrina Guziaren Esplikazioaren Saiakera*" (1858, bera hil ondoren argitaratua). Obra argitaratu ahal izateko, gure idazle zahar askok eta askok bezala, egundoko zentsurazakoak jasan behar izan zituen: 100 orrialdetik gorako lana gaztelerara itzultzeraz behartu nahi izan zuten argitaratze-baimena jasoko bazuen (Korrejidorearen menpeko zentsoreek euskararik ezagutzen ez zutelako, jakina). Goierriera peto-petoan idatzi zizun.

Doktrinak, gainbegiratu arin bat emanik, 'aspergarri' samarra badirudi ere, gaurko pentsamoldearentzat 'karroza' antzekoa, baditu pasarte bixi-bixiak, literatur balio interesantekoak ere. Hona hemen pare bat, ortografia moldatua.

Gure nekazariak betidanik izan ditugu feri eta tratuzale --eta tabernazale, noski--; hauen azken 'paradero' txarra aipatzen digu Mutiloko apaiz zaharrak:

"Azkenik, premia egiazko bage merkatutik merkatura eta tratutik tratura eta tabernatik tabernara dabilzan ne-



kazari pobreak ezagutu behar due urtearen kabuan zenbat denpora alperrik galtzen duen, zenbat gastu alper egiten duen, zenbat kalte eren emazte eta umeai egiten dien, zenbat arazeri eta zenbat oker datozkien eren tratoetatik, eta nola komunkiro eren familiak hondatzen dituen, eren buruak galtzen dituen, eta zorigaitzoko paradero eta zahartzaro miserable bat izan ohi duen, lehenago zorrez eta zorritz betirik hiltzen ezpadira".

Eta erromerietako dantzetako pekatu-bideetatik ihes egiteko, hara zer nolako aholkuak eskaintzen dizkiten bere garaiko neska-mutilei:

"**Galdere:** Eta aitatu ditugun dantzako peligro handiak eta askandalo nabarben edo publikoak ahaleginez edo ahalbaitez eskusatze, zer neurri hartu behar ditue dantzariak erak eta he-

rrietako agintariak?

Erantzuna: 1&. Neska-mutilen artean edo gizakume eta emakumeen artean eskuak alkarri emanik dantzarik ez egitea, eta ez permititzea; baizik painueloekin dantzatzea, herri askotan usadioa edo kostunbrea jarri dan bezela (1*). 2&. Modestia bage dantzatzen duen guziak: nola diran, lehen aitatu ditugun albojoka eta tiraka emakumeak darabiltzatenak edo beste zinkkeriak nabarbenkiro egiten dituanak berehala dantzatik atera eragitea eta kastigatzea (2*). 3&. Dantzaren bukaeran egin ohi diran erakerizko korrikak (3*) eragozte, eta soinuariari pena edo kastigu galant bat ematea hartako soinurik jotzen badue, eta batez ere 4&., dantzak bukatzea baserriarrak ilundu baino lehenago eren etxeetara joan ditezkean moduan, bada bestela bideetan libertade, eta erakeri handiagoak izan ohi dira plazan bertan baino".

(1*) Iztueta zaldibiarrek ere sarritan aipatzen du painueloaren kontu hau. Baina honek ikuspegi estetiko eta etnografikoa du, etikoa baino areago.

(2*) Justiziako Jaunek zepoan sarrrarazi behar dituztela dio beste pasarte batean.

(3*) Biribilketak, alegia.

Txerrigorriak



IRVROK S. A.



BANATZAILE OFIZIALA

Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54
Fax: 88 21 94

N-1 Errep.
OLABERRIA



UNED.BERGARA IKASTETXE ELKARTUA

93/94 IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEAK

LEHENENGO EPEA: irailaren 15etik urriaren 15era
BIGARREN EPEA: urriaren 1etik 30era

ARGIBIDEAK:

UNED-BERGARA Ikastetxe Elkartuko Idazkaritza
San Martin Agirre enparantza, z/g (69 p.k.)

20570 BERGARA

BULEGO ORDUAK:

Asteartetik ostiralera 10,30etatik 12,30etara eta 17,30etatik 20,30etara. Larunbata goizez 9etatik 12etara.



Irakurri
eta
zabaltzazu
Goierritarra

GOIERRITARRA Etxean jaso nahi dut

NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT


Izen-Deiturak:

Helbidea:

Herria Tlf.

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali.

DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI ESKER



AREAK:

- 1 - TXAKURTXULO
- 2 - GOIERRI
- 3 - OIANGU
- 4 - MAJORI
- 5 - ARAMA
- 6 - SAN JUAN

Egilea: Fermin Etxeberria

ARRANO

Taberna

Ogitartekoak eta Pintxoak

Kale Nagusia, 12

Tel. 88 74 47

BEASAIN

LOINAZ

Taberna — Jatetxea

BAZKARI ETA AFARIAK

OGITARTEKOAK ETA PINTXOAK



K/ Nagusia, 27 - Tfnoa. 88 20 07 - BEASAIN

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

inlingua

hizkuntzak

JATORRIZKO IRAKASLEAK
MAILA GUZTIAK
INGELES, ALEMANIERA,
FRANTSESA ETA ARABIERA
MATRIKULA ZABALIK

J.M. Iturrioz, 11-1.

Elkano kalea, 8-1.

Iparragirre, 8-1.

☎ 16 05 72

☎ 88 11 37

☎ 72 22 23

BEASAIN

ORDIZIA

ZUMARRAGA

Argazki

“Ortzadar”, Ordiziako Argazkizale taldeak utzitako argazkiak (Estebe).



Arama herri txikiaren sarrera, 5. area.



Oiangu gun naturala, 3.area. Parkea umeentzat.



San Isidro granja, Goierri L. Eskola inguruan, 2.area.



Aita Urdanetaren estatua eta Zabala Jauregia herrian.

**Kirol jantzieta
espezialistak**

Domingo Unanue Enparantza 5
Telf.: 88 85 18



20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

GOIERRIKO ZURAK, S.L

Inportazioko ezur-biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g
☎ 88 80 23

20210 LAZKAO



GORROTXATEGI




**Arraultzaritza
eta salmenta**


Bikuña 19 eta Gurutzeta gaina
IDIAZABAL
Tel.: 80 12 59 - 80 10 77
Faxa: 80 14 76



Ordiziako ikuspegi orokorra.



Eguraldi ona lagun, Txindoki Kilometroak-en zaindaria.



Zabale Dorre-etxe zaharra, 6. areatik hurbil.



AMPO S.COOP B.L.
IDIAZABAL Gipuzkoa

ALTZAIRU FUNDIZIOA

- Moldaturiko piezak.
- Zentrifugaturiko Tuboak.
 - * Aleatuak.
 - * Herdoiltezinak.
 - * Berogaitzak (Errefraktarioak).
 - * Nikel oinarritutako aleazioak.

AENOR-ek onartutako enpresa

ISO 9002 Tel.: 80 14 42 - Faxa: 80 18 62



AMPO S.COOP R.L.
BEASAIN Gipuzkoa

BALBULAGINTZA

- AMPO Koperatibak balbulagintzarako duen Dibisioaren merkatal izena: POYAM da.
- Bertan, 2 "diámetro duten balbuletati 48" arterainokoak egiten dira.
- Balbula hauek, Petrolio, Petrokimika, Energia, Alumina, Kimika Industrietarako eta Kriogenika Lantegietarako, Industri nahiz etxetarako gas banatzaileentzat egiten dira.
- Honako etxe hauetaz homologatua: EXXON, TEXACO, AMOCO, CONOCO, DUPONT, B.P., REPSOL, ENAGAS, GAS EUSKADI.

Tel.: 88 60 50

Faxa: 88 88 47

Eusebio Iziar: "Miraria da Ikastolak noraino iritsi diren ikustea"


53 urte ditu, egun EAJko zinegotzietako bat da Ordiziako Udalean, eta Kutzako langilea, baina urtetan bertako "Jakintza" Ikas-

tolako Gurasoen Elkarteko partaide eta buru ere izan genuen: 1975ean hasi eta guztira sei urte, horietatik bi lehendakari bezala.

Jose Ramon Gaztañaga (Alkate izana eta gizon ezaguna) zena zegoen presidente, eta berak eskatu zion Juntan sartzeko, "eta baiezkua esan nion, du-darik gabe. Alde batetik, hiru seme-alaba nituen ikastolan, eta bestetik ikastola lanean ari zen irakaskuntzan eta gure hizkuntza berreskuratzen".

GOIERRITARRA.- Zein zen orduko ikastolaren egoera?

EUSEBIO IZIAR.- Karmeliten ikastetxea erosi berria zen. 250 bat ikasle egongo ziren. Ikastolatik atera nintze-nean, BBB (BUP) irakasten zen eta 1.000 ikasletik gora zebiltzan. Ordizian jaiotzen ziren haurren %60-75a ikastolara etortzea lortu genuen. Miraria garai hartako bitartekoak ikusita: tokia eskasa, gaur ez genuke onartuko gure seme-alabak horrelako geletan sartzeari; tartean titulurik gabeko irakasleak... Baina borroka bat zen, gurasoen apostu gogorra, eta genuen gauzarik baliagarriena jarri genuen apostu horretan: gure seme-alabak. Egia da eskola-porrota ere izan dela. Baina mi-



raria da ikastolak noraino iritsi diren ikustea!

G.- Zeintzuk ziren arazorik larrienak?

E.I.- Hiru bereziki. Gelak eta irakas-

leak lortzea, eta, garai hartan eskola pribatua zen, finantziarioa... Ze ez ziren bakarrik herriko umeak, lehen zikloa bukatu ondoren Zaldibiatik, Legorretatik, Itsasodotik eta Amezetatik ere etortzen zen ikaslerik. Haien-tzako jangela behar zen. Dena lortu genuen, urtean zehar mila ekintza anto-latuz: festetan, festetatik kanpo, taberna, tonbola, Ordizian, beste herri batzuetan... Jaurilaritza ere hasi berria zen, eta, nahiz eta bere jarrera estimatzekoa izan, ematen zuen dirua gutxi zen...

G.- Eta irakasleak non hezten ziren?

E.I.- Lehendik baziren euskara ondo zekiten irakasleak eta modu batera nahiz bestera, lortu genuen kanpotik eta ekarri, gurekin aritzea. Batzuetan tituluak trukatu-edo..., baina beno! Udan ikastaroak egiten zituzten, batzuek Catalunyan eta...

G.- Kanpotik ikastolari egin zaion salaketa izan da euskara baietz, ondo irakasten zela, baina beste ikasgaietan trebatutako irakasleen maila halamoduzkoa zela.

E.I.- Ni ez nago ados horrekin. Beste

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta Erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.
Telef. 88 05 43 BEASAIN

BITUPRENE IRAGAIZKETA SISTEMA
PLASTIKO, BARNIZ, ESMALTE ETA PINTURA
MOTA GUZTIAN ESKEINTZA ZABALA

Dinex s. a.

Senpere Merkatal Zentrua, 1. solairua (3 zkia.) BEASAIN
Tfnoak: 88 06 88 - 88 93 50 Fax: 88 06 88

GORBEL HAIZEA

DISEINU GRAFIKOA

G.H.

ETA PUBLIZITATEA

DISEINU GRAFIKOA ETA PUBLIZITATEA

Logotipoak, katalogoak, buzoiketak, ilustrazioa eta Liburu-irarketa.

ERROTULU ETA ARGIZKOAK ibilgailuetan,

dendetan, pabiloietan, industrialak norbere diseinuarekin

SERIGRAFIA pizkailuak,

boligrafoak, eta publizitatezko edozein motatako gaietan.

ORDIZIA-Tfnoa: 16 12 87 - LEGAZPI-Tfnoa: 73 43 61

TXANOAK POLOAK
KAMISETAK IZERDI-ZAPIAK

Festetako zapiak

KAMISETAK

ENPRESEARAKO

DENDETARAKO

NORBERE ANAGRAMAREKIN

OIHAL - PUBLIZITATEA

ikasgaietan ere irakasle trebatuak zeuden, ez euskarari bakarrik. Nire etxeko adibidea jarriko dizut, eta garai hartako gurasoen seme-alabena, jende karreraduna da asko, eta lanean dagoe-

“Penagarria da zentru bat eraikitzeke oraindik gure poltsikutik ordaindu beharra”

na. Hobeia izan zitekeela irakaskuntzaren maila? Noski! Irakastorduetatik kanpo irakasleek ordu asko sartzen zituzten, eta hori, azkenean nabaritu egingen da.

G.- Nolakoa harremana zenuten herriko beste ikastetxeekin?

E.I.- (Barreak...) Gaurko harremanak ez ditut oso ondo ezagutzen, baina antzekoak. Une jakin batean “Santa Ana”n bertan gela batzuetan ikastola-koak zeuden eta beste batzuetan “Milagrosa”koak. Ona izan zen hartumana. Pertsonak, nahiz eta kultura ezberdinekoak izan, zenbat eta gehiago ibili elkarrekin, nik uste dut hori aberatsa dela. Gu, nolabait esateko, akonfesionalki ginen, Milagrosakoak ez. Gero, garai hartan Udalari eskatu genion guk hartuko genituela Ordizian jaiotzen ziren haur guztiak 1. ziklorako, eta 2. zikloa nahi zuten ikastetxean ikasteko aukera izango zutela irakasleek. Hori zen gure konpromezua. Baina ez genuen lortu.

G.- Ba al zuen beste ezaugarri berezirik ikastolak?

E.I.- Niretzat, bereziki hizkuntza. Ezin

da esan haurrak ikastolara eramaten zituzten gurasoak abertzaleak zirenik, eta eramaten ez zituztenak ez zirenik abertzaleak. Ezin da bereizketa hori egin.

G.- Nola ikusten zuten erdaldunek ikastola?

E.I.- Baziren ikastolan guraso erdaldun peto-petoe seme-alabak, baina “la escuela de los vascos” esaten zioten... Beno, eta gauza bat garbi genuen, diru-arazoengatik ez zela inor ikastolatik kanpo geratuko.

G.- Sare Publikotik kanpo geratu dena, Ordiziako Ikastola izan da bat.

E.I.- Harrigarria da, baina hori izan da erabakia eta nik errespetatzen dut. Umeen jaiotza behera doa, nire garaian irakasleko 35 ikasle zeuden, orain ez

“Matizik gabeko euskaldunon festa izatea espero dut aurrerantzean Kilometroak”

dakit 20ra iristen diren. Gurasoak prest egongo dira kuotak ordaintzeko, no-raino?

G.- Zein da zure iritzia ikastolei buruz?

E.I.- Nik uste dut oso komodoak gara. Beharbada, Ordizia herri txiki bat da, eta badakigu bakoitzaren pentsakera politikoa nondik nora dabilen. Eta, zoritxarrez, ikastola partidu politiko jakin baten haritik joan dela esan du jendeak, eta ni ez nago uste horrekin ados. Identifikazio hori ez da positiboa. Irakasleak ez dira bakarrik ikasgaien irakasle, hezitzaile ere badira, eta zen-

bait unetan, ikasleen eredu. Eta irakasleak zer egin hura egin izaten da kontua batzuetan. Adib., manifestazio bat badago, irakasleak pertsona den aldetik, eskubide osoa du joateko. Baina irakasleak ikusi egiten du. Agian, hortik etorriko da halako ikastetxea jendeak ideologia jakin batean kokatzea. Eta hori gertatu da hemen, eta ez hemen bakarrik.

G.- Zein iritzi duzu “Kilometroak”i buruz?

E.I.- Nik uste “Kilometroak”en helburua aldatzen ari dela. Hasiara batean, batez ere diru-lortzea zen, baina egun euskaldunen festa bihurtu da gehienbat. Penagarria da zentru bat eraikitzeke oraindik ere gure patrikatik ordaindu beharra. Baina gauzak horrela daude. Haurtzaindegi bat egin nahi da ikastolan eta hori ordaindu egin behar da. Baina espero dut aurrerantzean “Kilometroak” euskaldunon festa izatea soilik, inolako matizik gabe.

G.- Eta euskararen egoera Ordizian?

E.I.- Baikorra naiz. Nire lantegian gero eta gehiago erabiltzen da euskara, eta pentsatzen dut beste lantegietan ere antzeko zerbaite gertatuko dela. Baina batzuetan haserretu egiten naiz, nire etxetik hasita. Batez ere gazte jendeagatik esaten dut. Gazte jendeak guk baino asko ere hobeto ezagutzen du euskara. Eta erdera hutsa entzuten du kalean sarri. Gazteen arazoa dela pentsatzen dut. Eta ikastolan ibilitako zenbait gaztek, nahiz eta gaur egun erderaz egin kalean, ba ezkonduko dira eta orduan hasiko dira berriz euskararekin, seme-alabengatik egingo dute esfortzu hori. Penagarria da. Baina gure gaztedia, gehientsuena abertzalea da, eta alde horretatik, itxaropentsu nago.

Jon Imanol Iturrioz



ARCO EUROPA
URREZKO IZARRA
KALITATEARI

- BOILOTXOAK
- KRUSANAK, e.a.



Telefona: 88 55 00
ORDIZIA - BEASAIN

AURTEN JUBILATU DEN JAKINTZA IKASTOLAKO BETERANETAKOA

Ana Mari Larrañaga: "Ume, irakasle eta gurasoen hutsunea nabarituko dut orain"

Ume ugari ikusi ditu hazitzen Ana Mari Larrañagak. Jakintza Ikastolan ikasi dugun gehienok ezagutzen dugu, ugari ikasi dugu berarekin. Bere bizitzako 24 urte euskaraz

irakasten eman ondoren, Ordiziako Ikastolan paper garrantzitsu bat jokatu duen pertsona dela esan daiteke. Aurten jubilatuko egin zaigu.

Donostian jaio eta Usurbilen igaro zuen bere gaztaroa. Ordiziara ezkontzera etorri aurretik, sei urte egin zituen Orion maistra moduan. Beraz, tituloduna eta irakasle bezala esperientzia faltarik ez zuen emakumea etorri zitzaigun herrira, Itsasondoko eskolatik igaro ondoren.

1968. urtean Joxe Ramon Gaztañaga zenak Ikastolako andereño izateko proposamena egin zionean, Ana Mari baietz esan zuen eta Beasainen ikastaro bat egiten urte bete pasa ondoren, Jakintzan hasi zen lanean 1969. urtean.

GOIERRITARRA.- Nondik jaio zen Ordizian Ikastola bat sortzearen ideia?

ANA MARI.- Ordiziako Ikastola 1966. urtean jarri zen martxan. Bere sortzailea, herrian osatu zen gurasoen talde bat izan zen. Dena dela, gurasoak ez ziren talde honen partaide bakarrak. Esate baterako Lutxi emagina ere elkartearen kide zen, eta bera bezalako gehiago ere bazeuden. Talde honek arazo handiak izan zituen. Francoren garaia zenez, bilkurak leku ezberdinetan egin behar izaten zituzten, ez ziren lasai aurkitzen. Lehengo andereñoak Rosarito Lasa eta Mari Karmen Oiarbide izan ziren. Donostiara joan ziren ikastaro bat egitera, ondoren Jai-Alai edo Pelotazaleen elkartearen hasi ziren lanean. Gero beste andereño batzu gehitu zitzaizkien, ni sartu nintzen ur-

tean bost zeuden. Nire maistra tituloa zela eta Ikastola legalizatzea posible izan genuen.

G.- Zeintzuk izan ziren aurkitu zenituzten oztopo nagusiak?

A.M.- Politikoki izan genituzten zenbait arazo. Ikastolan lanean hasi eta

sarito ni baino okerrago ibili ziren. Beraien atzetik zebiltzatela konturatzen zirenean, euskarazko liburuak izkutatu behar zituzten, askotan Jaxinto Mujika-ren etxera eramaten zituzten. Ekonomikoki ere izan ziren zenbait arazo, noski. Guraso Elkarteak San Jose Ikas-



egun batzuetara Guardia Zibila etorri zitzaidan etxera nere datu guztiak eskatuz. Hasiera batetan beldurra sentituen, asko larritu nintzen. Baina azkeneko momentuan galdetu egin nien ea zertarako behar zituzten datu guzti horiek, gainera datu hoiek Delegazioan zeudenez. Zergaitik etorri ziren nere etxera? Hau galdetu eta ezer esan gabe alde egin zuten. Mari Karmen eta Ro-

tetxea erosi egin zuen eta horrela hasi zen Ikastola piska bat handitzen.

G.- Zeintzuk izan ziren jaso zenituzten laguntzak?

A.M.- Elizaren aldetik laguntza handia jaso genuen, bere babesean sortu ginen. Gurasoak eta sozioak ere laguntza handia eskaini ziguten. Ikastolaren sormenean, alde horretatik ez genuen inongo arazorik izan.

KATTALIN

ERRETEGIA - SAGARDOTEGIA

*Sagardoa
txotxetik*

Antzizar Auzoa, 4, "Biona" etxea. (Polideportibondoan) TEL. 88 92 52 BEASAIN

ILEAPAINDEGIA

AGURTZANE

Urdaneta, 42 behe. Tfnoa: 88 19 50 ORDIZIA



G.- Ikastola berria izanik, gurasoek ez zuten beldurrik izan haurrak matrikulatzeko orduan?

A.M.- Ez dut uste jendeak beldurrik zuenik, segituan fidatu ziren gutaz. Hala ere bazuten kezka bat: kartilen ofizialtasunak izugarri larritzen zituen denek. Baina berehalaxe joan zitzaizkien beldur guztiak. Nire atzetik Belen Maiza sartu zen lanera eta orduan maila bakoitzeko bi talde egiten hasi behar izan genuen. Gutxi gora-behera 36 pertsona nituen nire gelan. Handik urte batzuetara maila guztiak eduktzera behartu ziguten eta inguruko herrieta-ko jendea hasi zen etortzen. Beraz, denbora gutxian asko sendotu eta indartu ginen. Gurasoek lasai bidaltzen zizkiguten haurrak.

G.- Nola ikusten duzu gaur egungo Jakintza Ikastola eta Buesaren le-gearekiko hartu duen bidea?

A.M.- Nere ustez Ikastola oso ondo dago. Lehengoarekin konparatuz egoera lasaiago batean aurkitzen dela esan daiteke. Askok aurreratu du. Buesaren legeari dagokionez, bide egokia hautatu duela uste dut. Eskola Publikoaren sarean integratu ezkerreko autonomia handia galduko luke Ikastolak. Beti egon naiz Ikastola publikoa izatearen alde, baina argi esan behar da eskola honek berria izan behar du, ez zait gustatzen proposatzen diguten betiko eskola eredu.

G.- Hainbeste urtez 6, 7 eta 8 urteko haurrekin lanean egon ondoren istorio eta pasadizo ugari izango di-

tuzu guri kontatzeko.

A.M.- Ia egunero gertatzen zaizkigu gauza bitxiak irakasleori. Askotan esaten dugu liburu bat idatzi dezakegula gertatutako istorio guztiekin. Nik bereziki bat gogoratzen dut, San Jose-ko Ikastetxean gertatu zitzaidan. Arratsal-

“Sare Publikoan, autonomia galduko luke Ikastolak”

de batean haur bat oso berandu iritsi zen, atsedena pasatu eta ia irtezeko ordua zen. Nik ea non egon zen galdetu nion, errieta pixka bat egin behar nion. Baina, bapatean neska gaixoak lora sorta bat atera zidan. Moztuta gelditu nintzen, ezin izan nion errietarik egin. Umeekin oso ondo konpondu naiz, adin hoietan erraza da beraiekin lana egitea. Gurasoekin ere ez dut inongo arazorik izan. Benetan oso gustora egon nahiz Ikastolan, andereño guztiak oso jatorrak izan dira. Guzti honen hutsa nabaritu dut, ziur nago.

✍ Amaia Balerdi

Castelu


Iturgintza - Berogintza

Mendi Ondo Etxea ZALDIBIA Tel. 88 40 57
Erakusketa: Esteban Lasa, 7 BEASAIN Tel. 88 80 29



-Hasiera-mallako ikastaroak
-Ordu batzuetako edo egun batzuetako ibilaldiak
-Zaldien estatua

LAZKAOMENDI - ☎ 884260 ☎ 908-676873



GUIPUZCOANA

Pakete garraio eta banaketa

Beasain (Gipuzkoa)
Avda. Navarra, 8
Tl. (943) 88 06 68

Donostia
Zamoka, 22 - bº Ergobia
Tl. (943) 55 76 00

Kilometroak

Egun bakarreko lorea ez baino 4 hilabete ekintzaz beteak



Oianguko parajeetan korrika ordiziarrak.




Bertako Abesbatzek parte-hartze handia izan dute.



"Mountain Bike" lasterketako saribanaketa.



EH Sukarraren kontzertu arrakastatsua.



TXINDOKI

LOGOS

J. M. Iturrioz z/g (matadero parean) **BEASAIN**
Tfnoa: 88 03 98



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 B E A S A I N

HERBALIFE®

Banatzaile independenteak

ADI!

Hau da behin betirako zure gehiegizko pisua ezabatzeko aukera!

Interesatuak dei 881417 - 160786 - 885710 - 493617 telefonoetara

- ⇒ Produktu naturala %100ean.
- ⇒ Appetitua kontrolatu eta normalduko duena.
- ⇒ Zelulitisa erabat kentzen du.
- ⇒ Zeure gustoko platerak jan ditzazkezu.
- ⇒ Beharrezko elikadura zelular guztia emango dizu.
- ⇒ Energia eta bizitasunean irabaziko duzu.
- ⇒ 100%eko garantiarekin: lasai geratzen ez bazara, dirua bihurtuko dizugu.



KILOMETROAKen denda iraunkorra herrigunean.



"Marron" ataundarra Everesteko gailurrean.



Puenting-a 100 urte bete dituen Beti Alai pilotalekuan.

Jatetxea

HAI ZERI

Gudarien Etorbidea - Tel. 88 39 60
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

Zer nahi hura:

PINTXOTAN: denetik
OGITARTEKOAK
BAZKARI eta
AFARIAK

88 00 35



Kawasaki YAMAHA SUZUKI HONDA

ZUREMOTO, C.B.

Poligono Hiribarren, Atze 1
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Teléf. (943) 88 39 03

Etxe - Zuri
Sagardotegia


Sagardoa txotxetik urte osoan

Etxe-Zuri baserria
Tel. 88 20 49

20212 OLABERRIA

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa

fundación kutxa

Everesteko azken metroak

Arratsaldeko ordubiak dira berriro Hego lepora iritsi garenean, berriro esaten dut, izan ere bi egun lehenago, lehen ahaleginean, xerpak eta inglesak zirela eta ez zirela, huts egin bait genuen. Bizi izan genituen une latz haiek elkartasun eza lagun, berriz gora igotzeko egarria kendu erazi ziguten, oraindik ere gau hartako ordu luze eta mikatz haiek, hemen etxeko gozotasunean burura etortzen zaizkidanean, amets sineskaitz bat dirudi. "Ametsak eraman nazala..."

Jeisteko erabakia hartu ondoren, behera gindoazela Lotseko orman zehar, buruak ezin zuen atzean utzi genuenari begiradak zuzendu gabe jarrai, indar berezi batek behartuta egongo balitz bezela. Bihotza berriz, labankada batek zeharkatuta egongo balitz bezala zegoen. Erantzunik gabeko galderaz nahastuta zegoen burua. Gailurra? Gizona? Bizia?

Gailurra..... gailurra.

Bizia....gizonaren bizia...bizia, bizia...
Elkartasuna, elkartasuna, elkartasuna, elkartasuna.....

Bigarren kanpora jeitsi ondoren, orduak zihoazen eran, gure igotzeko grina berpizten hasi zen, berehala hartu genuen berriro igotzeko erabakia.

Eta hemen gara berriro 8.000 metro-tan, lehen esan dudana bezala. Oraingoan, indartsuago gaudela ematen du, buruz behintzat; gorputzez, behar bada, lehen ahalegin horretan indar asko galduko genuen, egia esan beldur horrekin igo gara. Hala ere, konfidantza osoa dugu oraingoan gure garraxien dardara gailurretik lau haizetara bidaliko dugula.

Iluntzeko zazpietarako ilunak kentzen digu inguruak ikusteko aukera, berarekin dakar hotza baita ere (-30, -40). Etzanda gaude ahal dugun gehie-



na edaten (tea, zopa), gorputza hidratatzen. Haize bolada zakar hauek, gure hitzak moztzen ditu tarteka.

Esperientzi berri bati hasiera emateko momentu berezi horren aurrean gaude, 12 t'erdietan abiatuko gara gailurrera. Lehen pausoak neurtzen, zaila zaigu oxigeno ezak agintzen duen bezala, nahiz eta maskarekin joan. Eguzki irteerak, bide erdian topatzen gaitu, bere epeltasuna haizeak eramaten du.

Inguruko mendi altu horiek (Makalu, Lotse e.a.), beheran gelditu dira. Konturatu gabe azken maldak Hego gailurrera eramaten gaitu. Ikusmira benetan zoragarria agertzen da lehenbizi pittin bat jeitsi, ondoren aurrerago makina bat buruauste eman digun Hilari-ren harmaila hori (8-10 metro) eta hemendik goruntz elur ertz bati jarraituz, hiru hanka dituen tresna bat, gailurra da, Everesteko gailurra da sinestea zaila bada ere, eta hor dugu, azken me-

troak gelditzen zaizkigu. Gailurra ziurtzat jotzen dugu, nahiz eta... Azken metroak. Hogeitamar metro, hogeitamar... pausoak banaka gozatzen noa, segundu horiek geldieraziko banitu bezela.

Azken metro hauetan zuek hartu nahi zaituztet, lagun, zu, Pello, Mikel eta bestea, eta beste zerrenda luze, luze bat. Alotzako zelai, Txindoki eta Aitzgorriko parajeak ere hor dabilzkit dantzan nere buruan.

Ah! eta nola ez, Euskal Herri maite hori, non ote zaude hemendik begirata, besoa luzatuko nuke hemendik zu laztantzearren.

Azken pausoak, aupa!

Garraxika lehertu nahi nuke.

Ez dut hitzik.

Haizea izan nahi dut....

✍ **Marron** (Joxe Ramon Agirre, KILOMETROAK 93 ikurra Everestera eraman zuen ataundarra)



TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa: 88 89 53 ARAMA

Maratoia

KILOMETROAK ez, askoz ere gehiago, Maratoia behar bada,... egin beharrean aurkitzen gara orain, bai; guztiok amesten genuen Euskal Eskola Publiko Berria lortu ahal izateko. Zenbaiten ustez, azken Lege horrekin konponbidea aurkiturik zegoen; egungo Eskola "Publikora" sartu eta kitto!, barruan "borroka" eginez aldatuko omen; beste zenbait aldiz, ezinbestean sartu beharrean aurkitu da ekonomi arazoa dela medio eta azkenik, lege horretatik at geratu den Ikastolen taldea daukagu.

Beraz, oraindik hiru eskola mota izaten jarraituko dugu, publikoa, pribatua eta ikastolak.

Eta aurrerantzean ere Ikastolaz hitzegiten jarraituko da (Buesa eta konpainiak nahi ez badute ere) planteiamendu sakonagorik egiten ez den bitartean, hots, Herri honek duen hizkuntz gatazkari eta kultur arazoari orohar, irtenbide egokirik ematen ez zaion bitartean. Eta hezkuntz arazoaren irtenbidea (Herri honek dituen arazoetariko bat eta ez horregatik txikiena) ez zaigu alderdi espainolisten eskutik etorriko, hori argi eta garbi eduki behar dugu, nahiz eta Gobernuen ustez, izugarritzko "ahaleginak" egiten ari den irakaslegoa, administrazioa, e.a. euskalduntzeko, horretarako subentzioak murriztuz eta kasu askotan kenduz.

Nekez egin daiteke benetazko plantzaintza serioa Hezkuntza saila (gure kasuan) kanpotarren esku dagoen bitartean, beste helburu eta beste interes batzuren defendatzaile direnez beroien menpe daudelako eta adibideak ugari ditugu oraindik hasi besterik egin ez den ikasturte berri honetan, eta zerbait aipatzearren hona hemen: bi mila irakasle inguruk oraindik ez dakite zein eta non izango duten beraien lanpostua; bestalde, euskarazko lanpostu asko erdaldun elebakar irakasleentzat izango dira, e.a., e.a.,....

Horrelako adibide gehiagorik jarrai genezake, baina ez dut uste gaur egun inork sinesten dituenik sail buru eta bere laguntzaileen hitzik, "zuritzeko" erabiltzen dituzten trikimailu eta arrazoin soziolinguistikiko, psikologiko eta pedagogiko guztiak soberan baitaude.

Beraz, ozenki esan behar dugu Lege hori Ikastolen mogimendua desegiteko sortu zela, ez bestetarako, ondorioz, zatiketa sozialaren eragile bilakatuz eta arazoa areagotuz. Eta zatiketa horren ondorioz sortu ohi den eta sortzen hasi diren arazoei inportantzia kendu nahiean edo, adierazgarriak dira Bue-sak eginiko adierazpenak: Eskola Itunak adostasun osoa duela, sostengu soziala, alegia.

Begibistakoa da Ikastolarik gabe ez duela lortuko "sostengu sozialik" eta

alferrikakoak aldarrikapen guztietan aipatzen dituen "bi sare besterik ez daude": berak ere ez baitu hori sinesten. Eta egin dituen aldarrikapen guztiak esanahi politikoz beterik daude, hala nola, "Ikastolarik ez da esistitzen" esaten duenean bezalaxe. Ikastolak ordezkatzeko duen zati bat ez bada esistitzen, Euskal Herriaren zati bat ez da esistitzen, eta zenbat eta gehiago hurbilduz, bereganatuz, orduan eta gehiago espainolizatuz joango gara, eta gure nortasuna galduz gero gure Hezkuntza Sistema propioa garatuko lukeen benetako Euskal Eskola Publiko Berria ukatzera arte iritsiko baikinake.

Beraz, aurrerantzean ibili beharreko bidea ez da lorez betetakoa izango, arantzez josirikoa baizik, eta gure helburuak bete nahi baditugu, ezinbesteko baldintzak eskatzen jarraitu beharko dugu beldurra uxatuz eta baztertuz, eta Hezkuntza departamenduak (edota administrazioak) egin ditzakeen akatsak salatuz, beregain dauden konpromezuak bete ditzan, guztiok nahi dugun Euskal Eskola Publiko Berria lortu arte. Honek guztion inplikazioa eskatzen du.

Agustina Pontesta
Irakasle Elkartekoa

URBIETA JATETXEA

Eguneroko menua eta banketeak

Espezialitateak: txuleta, kokotea brasan,
etxeko postrea...

HELBARRENA Tfonoa: 8810 19 ATAUN

BITTOR Jatetxea

Bazkari eta banketeak

ATAUN - San Martin - Tfonoa: 88 10 33



LAGUN ARO VIDA

Aurrenekoa eta azkenekoa

Ez dut esan nahi Kilometroak-era estrineko aldiz joango naizenik eta besterik ez naizenik joango. Ez naiz Ramon Etxezarreta bezain "enfant terriblea", epatatzea gusatzzen zaigu, baina. Estrineko Kilometroak nobedosoan izan ninduzuela eta azkeneko honetan ere izango nauzuela esan nahi nuen.

Eta zer? Bada, Beasainen-eta ibili ginela, ume eta gazte izateari utzi geniola eta 16 urte pasa direla, Goierri berrito itzultzeko euskaldunon festa hauxe eta ez dakidala euskararen egoerak hobekuntzarik izan ote duen gure bailada eta Herri honetan, nahiz eta kilometro, ibilaldi, korrika e.a. abar ibili euskalduna eta baskoa sarri. Horrelako ekintzetan parte handirik ez dut hartu eta ez dakit zerbait galdu ote den.

Izan nintzen, bai, orain dela gutxi Km-93 erakundeak Ordiziako Herriko Antzokian antolatu zuen zinemasaioan. "Ama Lur-Tierra Madre" botatzen zuten eta nola ez neukan ikusita, bada jakin egin nahi zerk eragin zuen bere momentuan zirrara hura gu baino edadetuxeagoen artean. 15 lagun ginen, egun berean ordu berean sagardoa edo nik zer dakit ematen baitzuten enparantza nagusian. Piper-potoak, folklorea, "Espainolak eta Euskaldunak" liburuan salatzen diren guztiak eta gehiago baizik ez filman. Azken urte-



tako euskal kulturak ez baino, "Ama Lur" prestigiatuak defraudatu nau.

Aurreneko Kilometroak-en eguneko ekitaldietan bazen garai hartako "sinbologiaz beteriko" pilota partidu bat. Frontoi-txar batean jokatzen zuten nire ikaskide batzuk, pilotarik gabe... Txalaparta batek takadak jotzen zituen, pelotakaden ezean. Horrelako zerbait iruditu zait "Ama Lur": sinbolismo asko eta intxaur gutxi. Horren antzekotasuna hartu diot zenbait "abangoardiako" ekintzei eta egun bateko jai hutsalari.

Egunotan profesionalen arteko pilota partiduak jokatzen dira. Zerbait serioxeagoa. Egia esan, zerbait loratu da azken hilabeteotan Ordizian, ekitaldiak eta izan dira, baina dena izango da gutxitxo bertako eta inguruko euskararen egoera kaxkarra iraultzekotan. Ibilaldi asko, km. asko, "gaurko hau-

rrak, biharko helduak" esaten zen lehenago, orain... eta gero ere? Andu Lertxundi eta Andoni Sarriegik esan berri dute beren belaunaldikoak ez direla euskaldundu-alfabetatu; atrebentzia ez bada, geureak beste hainbeste ez al du egin? Eta euskaldundu-alfabetatu bada, ahaztu dute gehienek, lanerakodetako behar ez bazuten.

Orain dela 15-16 urte euskara gutxiago egiten zutela bai ordiziarrek eta bai beasaindarrek, argudiatuko dit lagun batek. Hor irabazi dugula. Bai, baina prestigiatu al digute euskara gaitzontzeko goierritarroi? Ez al dugu askoz erdaraz gehiago egiten Idiazabalen, Itsasondon, Seguran eta besteetan? (Hori dio Siadecoko Iñaki Larrañagak). Ordizia eta Beasainen euskara gehiago entzuten bada, ez ote gurasoek umeei "euskaraz egiteko esfortzua" egiten dutelako? Beraien artean erdaraz. Umeek, berriz, zer ikusi hura ikasi. Edota, herrietakoak, Zaldibia, Lazkao, e.a.eko gazteak bertan po- teatzen dutelako ez ote?

Aurrenekoa joan nintzen eta oraingo honetara ere azalduko naiz. Askok izango dira, kontzientzia lasaitze aldera. Hobetuko ote da euskararen egoera Ordizian eta Beasainen (Goierri) aurrerantzean, halere?

Jon Mikel Arano Aramendi
GOIERRITARRAren koordinatzaile



RENAULT

AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
Tfonoak: 882442 -88 8901
Faxa: 88 24 42
LAZKAO

ERAIKUNTZAK

Etxebizitzak laister Ordiziako Elkano kalean

OTEGI-UNANUE

EDOZEIN ERAIKUNTZA EGITEKO PRESTATUA



Beko-Kale, 17 - 1.º
Telefona, 16 02 22
20249 ITSASONDO (Gipuzkoa)



Riño ELEKTRAGAILUAK

PHILIPS ETA GRUNDIG-en BANATZAILE OFIZIALA

Joxe Migel Barandiaran, z/g - Tfonoa: 88 00 84 ORDIZIA

“Jakintza” Dantza Taldea

Jakintza Dantza Taldeak urte ugari daramatza Ordizian euskal dantzak bizirik mantentzen. Gure kulturaren partaide bihurtuta, Ordiziako kaleak euskal kutsuz girotzen dituzte herriko haurrek. Beronika Peralta eta Nati Garcia monitoreek kontatzen digute bere historia.

Hasieretan “Amets Bide” izena zuen eta ordiziarrek ez ezik, Goierriko herri gehienetakoak ziren taldeko partaideak. Ikastolako Guraso Elkarteak dantza taldeak proposatuta, “Amets Bide” desagertu eta “Jakintza” sortu zen. Zuzendaritza gurasoen eta monitoreen esku zela, ikastola arduratu zen laguntza eta entsaiatzeko lokala eskeintzeaz.

Haurrek hileko 100 pzta. ordaintzen zuten eta diru hau taldeko jantziak, irteeretako garraio eta bestelako gastuak ordaintzeko erabiltzen zen. Garai hartako sei monitoreak (Fernando Garate, Pipo, Amaia eta Arantxa Baztarrika eta Iñaki eta Joxe Mari Dubreuil musutruk zebiltzen. Hasieretan ume asko animatu eta jende asko (mutilak batez ere, adin guztietakoak gainera) bertaratzen bazen ere, egun ez da hori gertatzen. Ikastolarekiko loturak berriz ere sendotu dituzten arren, azken urteotan independentzia mantendu dute.

Zer gertatu zen? “Ez zen inolako hasiererik egon. Ikastolako Junta aldatu eta Jakintzako lokaletatik Arana Kalerara bidali gintuzten. Diruz ondo genbiltzanez orduan, ez genuen lehen ematen ziguten laguntza ekonomikoa eskatu. Hau horrela, ikastolarekiko mantendu genuen lotura bakarra, bere lokaletan geundela. Duela urte bat, Kilometroak 93-rako prestakuntzak zirela eta, Arana-ko lokalen beharrean aurkitu zen ikastola eta lehenagoko lokala eskeini zigun. Bion arteko ha-



rremanak berpiztu egin ziren; berriro elkar hartzeko gogoa erakutsi dugu eta puntu guztiak eztabaidatu ondoren akordio batetara iritsi gara”. Oso pozik daude, urte guztiotan asko bultzatu baititu ikastolak.

Udaletxearen laguntzak duela sei urte hasi ziren, “Dantzari Txiki” egunak antolatzen hasi zirenean. Goierri osoko dantza taldeekin batera antolatzen dituzte jaialdi hauek. Ondoren beste bailadakoekin bilkurak egin eta urtean zehar jaiak non eta noiz ospatuko diren zehazten da. “Dantzari Txiki” Eguna Ordizian ospatzen denean ordaintzen ditu gastu guztiak Udalak. Hortik aparte, 100.000 pzta. ematen dizkiete. “Ezin daiteke esan kontratu bat dugunik, baina deitzen digutenero joaten gara”.

“Nesken gauza”

Lau irakasle izango dituzte aurten: Mari Jose de Migel, Nati Garcia, Mainer Hernandez eta Izaskun Merino. Dantzariak 80 bat izango dira. Aipatzekoa da mutilen kopuru baxua. Orain bi urte arte, neskez osatutakoa zen “Jakintza” Dantza Taldea. Gaur egun

behintzat, helduen taldean 7 eta gaztetxoenean 5 badira. “Garai batean, mutil gaztetxoek lagunei dantzara zetoztela izkutatu egiten zietela, hori nesken gauza omen zen”, diote.

Adinaren aldetik ez dute arazorik, 6 eta 25 urte bitarteko dantzariak dituzte. “Batzuk oso gustora etortzen dira, baina beste batzuk, gure ustez, nahiko beharturik datozkigu”. Aurten egin dituzten ekintza garrantzitsuenak, eguberrian eta irailean antolatutako jaialdiak, apirileko “Dantzari Txiki” Eguna eta festetan umeek dantzatzaren duten aureskua. “Gure proiektua lanean jarraitzea da, jaialdiak antolatuz, e.a. Kanpoko herrietara joatea ere asko gostatuko litzaiguke. Inauterietan zerbait berezia antolatzeko asmoa dugu, Ordizian ez da ezer egiten, beraz herriari deialdi bat egin eta nolabaiteko jaia gauzatzea gostatuko litzaiguke”.

Beraz, badakizue gazteok, eta batez ere mutilok, non duzuen euskal dantzak ikasteko eta ongi pasatzeko aukera ederra.

✉ Amaia Balerdi



Santa Maria, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA



GOITGI
OKINDEGIA

Etxezarreta, z/g.
Tel. 88 12 11
ORDIZIA

FOTOKONPOSAKETA

ANtZA

Lasarte-Oriako Industrialdea, 1-2 Pabiloiak
Tfnoak: (943) 37 15 45 Faxa: (943) 36 54 93
37 07 38

INPRIMATEGIA

GRAFIKAGINTZAN
AURRERA GOAZ

1993

BIDEO
KATALOGO
OROKORRA



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GOBIERNO VASCO
DPTO. DE CULTURA

JUBILATU ETA PENTSIODUNEN • KANPAINA •

POZTU ITZAZU
BEGIAK

6.900

pta.n baino ez
(urrunerako eta hurbilerako)

... eta gainera
Betaurreko Bifokalak

9.900

pta.n baino ez

**Eta gainera ...
Doan aztertuko
dizkizugu begiak**

IRAILA • URRIA



J. Larrañaga
OPTIKA

Ibargarai, 16 - BERGARA
Juan Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J.M. Barandiaran Enparantza - ORDIZIA



MULTIOPTICAS